


# Euskara eta Literatura



## Orientabide didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# **EUSKARA ETA LITERATURA IKASGAIA LANTZEKO ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK**

## **ATALAK**

1. Dokumentuaren xedea
2. Euskara eta Literatura ikasgaiaren ezaugarriak
3. Euskara eta Literatura ikasgaiaren ekarpenak, oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko
4. Oinarrizko gaitasunen eta hizkuntzen curriculumeko atalen arteko lotura
5. Orientabide didaktikoak
  - 5.1. Metodologia
  - 5.2. Irakaslearen eta ikaslearen eginkizunak
  - 5.3. Ikastaldea kudeatzea
  - 5.4. Denbora eta tokia kudeatzea
  - 5.5. Baliabideak eta materialak
  - 5.6. Ikasgelako jarduerak antolatzea
  - 5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak
  - 5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozkoaren ulermena
  - 5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozko adierazpena
  - 5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: interakzioa
  - 5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: irakurriaren ulermena
  - 5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: idazmena
  - 5.13. Literatura-hezkuntza
  - 5.14. Ebaluazioa
6. Baliabide didaktiko hautatuak
7. Bibliografia

## **1. DOKUMENTUAREN XEDEA**

Dokumentu honek Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura ikasgairako orientabide didaktikoak biltzen ditu.

Orientabideok Euskara eta Literaturaren ikaste-irakaste prozesuak antolatzen laguntzea dute helburu, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntzen curriculumean jasotako planteamenduen arabera; beraz, ikasgaiaren helburu orokorrak lortzeko zein oinarritzko gaitasunak garatzeko bideratuta daude.

Testu honek bere egiten ditu ikaskuntza aktiboaren printzipioak; horien arabera, ikasteko eta irakasteko prozesuaren metodologia-aldagaiak aztertuko dira orientabide didaktiko hauetan.

## **2. EUSKARA ETA LITERATURA IKASGAIAREN EZAUGARRIAK**

Oinarritzko Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzea da, jakintza-, afektibitate- eta gizarte-gaietan. Garapen horren oinarritzko osagaiak hizkuntza- eta literatura-hezkuntza dira; bi osagai horiek hizkuntza erabiltzeko ahalmena adierazten dute, gizartearen nahiz norbanakoaren lantzen diren jardueretako hainbat esparrutan.

Hizkuntza funtsezko alderdia da giza garapenerako, eta, gainera, funtzio bikoitza du: norbanakoaren garapena eta gizarte-garapena. Norbanakoaren garapenak pertsona bakoitzari pentsatzeko, ezagutza aldatzeko, eta bere jarduerak arautzeko eta adierazteko ahalmena ematen dio. Gizarte-garapenak, berriz, hizkuntzak gizartearen bidez transmititzeaz eta gordetzeaz gainera, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jarduera baten inguruan eraikitzen eta garatzen dira. Hizkuntza da, hain zuzen, kultura sortzeko, horren oinarriak ezartzeko eta transmititzeko tresna. Lotura zuzena du pertsonen bizitza afektiboarekin eta kognitiboarekin, eta, gainera, sentimenduen erregulatzaile eta ikaskuntza ororen (bizitzakoak nahiz akademikoak) bitarteko nagusi da; izan ere, esperientziak, hitzen bidez adierazi ondoren, aldatu eta beste maila bat hartzen du. Hori dela eta, hizkuntza bat ondo jakiteak tresna egokiak edukitzea dakar, norbanakoaren barnera hobeto hurbiltzeko, gainerakoekin harremanetan jartzeko, elkarbizitza arautzeko, besteekin lankidetzan aritzeko, eta modu kritikoa eta autonomoan ikasteko ere bai.

Hizkuntzak ikasteko eta irakasteko helbururik behinena hizkuntza-komunikazioa garatzea da, hau da, hizkuntzaren inguruko ezagutza eta erabilera-prozedurak garatzea, gizarteko hainbat eremutan eraginkor jarduteko. Beraz, Euskara eta Literatura ikasgaiaren ardatz nagusia hau da: komunikazio-testuinguru desberdinetan hitz egiteko, idazteko, irakurtzeko, eta entzuteko trebetasunak eta estrategiak garatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak dituen bi hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa desberdina izan arren, oso kontuan izan behar da hizkuntza ofizial bien garapen bera bermatu behar dela. Hartara, ikastetxeek, beren egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, bi hizkuntza ofizialetan jatorritzko eta garapenezko ezagutza- eta konpetentzia-mailak alderatu behar lituzkete, hizkuntzen egoera orekatzeko.

Bestalde, Oinarritzko Hezkuntzaren beste helburu nagusietako bat ikasle eleanitzak lortzea da. Horrek hizkuntza-irakasleak Hizkuntzen Tratatua Bateratua planteatzera behartzen ditu. Izan ere, hizkuntzak modu bateratuan irakastea arrazoi hauen ondorio da: batetik, hiztun elebidunak edo eleanitzak dakizkien hizkuntzen bidez hornitzen ditu ezagutzak eta emozioak; bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak transferitu egiten dira, eta, hirugarrenik, hainbat hizkuntza egon ohi dira aldi berean hiztunek parte hartzen duten hizkuntzaren erabilera-eremuetan. Egiaztapen horien arabera, beraz, hizkuntza

bakoitzak dituen ezaugarri bereziak landu behar dira, eta bateragarriak eta transferigarriak direnak hizkuntza guztien artean banatu.

Hizkuntzen curriculum bateratua planteatzeak hizkuntzak ikasteari eta irakasteari lotutako printzipio hauek onartzea dakar:

- Erabilera: hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoei bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.
- Ikuspegi komunikatiboa: askotariko komunikazio-trukeetan, ikasleen parte-hartze eraginkorra ahalbidetuko duen komunikazio-gune pribilegiatua izan behar du ikasgelak.
- Hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera baikorra: hizkuntzek gizarte-harremanetan eta norbanakoaren emozioen garapenean duten garrantzia aintzat hartu behar da.
- Inklusioa: ikasle guztiei hizkuntza-gaitasun eleanitza garatzeko aukera eman behar zaie, jatorrizko hizkuntza edozein dutela ere.

Hartara, behar-beharrezkoa da, alde batetik, ikasleentzat esanguratsuak diren eta helburu zehatza duten komunikazio-proiektuak proposatzea, ikaskuntza-prozesua gauzatzeko, eta, bestetik, horri lotutako ikuspegi metodologikoa –ikuspegi komunikatiboa– ezartzea eta indartzea.

Ikuspegi horren arabera, testua da oinarrizko komunikazio-unitatea –testuak hainbat tipo eta generotan sailkatzen dira–, eta ikaskuntza helburu komunikatibo zehatz bat lortzera bideratutako sekuentzia didaktikoen bidez egituratzen da. Sekuentzietan, *jakite hutsa* baino garrantzitsuagoa da *egiten jakitea*. Ikuspegi hori garatzen da orientabide didaktiko hauetan.

Hizkuntzen curriculumak:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/curriculum\\_2010/basica\\_refundido\\_2010/1\\_04\\_lmh\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_2010/basica_refundido_2010/1_04_lmh_e.pdf)

### **3. EUSKARA ETA LITERATURA IKASGAIAREN EKARPENAK, OINARRIZKO GAITASUNAK GARATZEN LAGUNTZEKO**

Ikasgai honek, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren garapenari egiten dion ageriko ekarpenaz gain, beste zazpi oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen du. Baina zer egin daiteke Euskara eta Literatura ikasgaiaren oinarrizko gaitasun horiek garatzen laguntzeko?

#### **Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna**

Hizkuntza-alorrak zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunari laguntzen dio honetan: mundua interpretatzen, mezuak analizatzen, bizimodu desberdinen kausa-ondorioak argudiatzen eta arrazoitzen, eta ezagutzaren esparru askotarikoei lotutako ahazko eta idatzizko testuak erabiltzen. Ikasleekin interesgarri izan daitezkeen osasun-, kontsumo-, zientzia- eta teknologia-gaien inguruan lan egiteak ere gaitasun hau garatzen laguntzen du.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Baliabide naturalen zentzuzko erabilerari eta osasunari lotutako gaien inguruko lan-proiektuak burutzea.
- Zientzia-azalpenak eta eztabaidak entzutea.

- Zientzia- eta teknologia-kulturari lotutako testu-generoak lantzea.
- ...

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

Hizkuntza, komunikazio-tresna izateaz gain, mundua irudikatzeko tresna boteretsua ere bada, eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Beraz, hizkuntzaren bidez ezagutzak eskuratzea eta eraikitzea oso lotuta dago ikasten ikasteko oinarritzko gaitasunari.

Gaitasun hau garatzen laguntzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Ikaskuntza helburuak zehaztea, sekuentzia edo unitate didaktikoen hasieran.
- Ikasitakoa berrikustea.
- Ikaskuntzan erabili diren estrategien inguruan hausnartzea.
- ...

### **Matematikarako gaitasuna**

Matematikari lotutako alderdi batzuk, testu ez-jarraituak (grafikoak, eskalak, portzentajeak...), adibidez, ulertu eta interpretatu egin behar izaten dira; horretarako, hizkuntza erabili behar da nahitaez. Bestalde, datuak, informazioak eta argudioak – arrazoiketa logikoak egitean, esaterako– zehatz interpretatu eta adierazi behar izaten dira; horrela, pentsaera abstraktuari eta matematikari lotutako trebetasunak lantzen dira.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Grafikoak dituzten testuen inguruko jarduerak egitea.
- Matematika-edukiak gaitzat dituzten proiektuak burutzea.
- Testu-generoak analizatzean eta ekoiztean, estatistikari lotutako datuak erabiltzea.
- ...

### **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

Hizkuntza erabiltzen ikastea arazoak aztertzen eta konpontzen ikastea ere bada. Horretarako, egitekoak zehazteko eta erabakiak hartzeko, komunikazio-egoera bakoitzak behar dituen estrategiak erabili behar dira; izan ere, hizkuntzaren eginkizunetako bat norberaren jarduera antolatzea eta bideratzea da. Horregatik, hizkuntza-trebetasunak garatuta, norberaren ekimena garatzen da, batetik, eta gero eta autonomia handiagoz jokatzeko lortzen da, bestetik.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Autoerregulazio-mekanismoak abiaraziko dituzten lan-proiektuak programatzea.
- Autoebaluazio eta koebaluazio-jarduerak egitea, lortutako helburuez eta egindako akatsez hausnartu ahal izateko.
- Ikasleen estiloak, interesak, zaletasunak... kontuan hartzea.
- ...

## **Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna**

Euskara eta Literatura ikasgaien informazio-iturri askotarikoak hainbat euskarritan erabili behar dituzte ikasleek; beraz, estrategiak irakatsi behar zaizkie informazioa biltzeko, informazio-iturri askotara jotzeko eta informazioa iritzi kritikoz hautatzeko, interpretatzeko eta etikaz erabiltzeko.

Bestalde, teknologia digitalaren bilakaerak beste komunikazio-bide berri batzuk – horiek ere ikasgelara eramatea komeni da– plazaratu ditu. Komunikatzeko aukerak ugaldtu egin dira, eta horrek beste hizkuntzekiko eta kulturekiko erlazioak ahalbidetu ditu, eta irakurketaren eta idazketaren gizarte-erabilerak bultzatu; horrek ezagutza denen artean eraiki ahal izatea ekarri du.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Web 2.0ren aukerak baliatzea, hizkuntzari lotutako lana bideratzeko.
- Internet erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, berrantolatzea eta jakinarazteko.
- Ikasgelan testu multimedialak erabiltzea.
- ...

## **Giza eta arte-kulturarako gaitasuna**

Gaitasun hau garatzeko, funtsezko egitekoak dira literatura-lanak entzutea, irakurtzea, interpretatzea eta balioestea. Arte-adierazpenak elkarrekin erlazionatu behar dira, eta, ulermen kritikoaren bidez, haien elementu inplizitu eta esplizituak nabarmendu.

Gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Kultura- eta arte-errealitatea ikasleengana hurbiltzeko jarduerak egitea.
- Literatura ulertu eta interpretatzeko tertuliak, sormen-tailerrak eta talde interaktiboen bidezko lana egitea; ekintza horietan, pertsona helduek ikasleekin batera interakzioan jardungo dute, interpretazio-lanean laguntze aldera.
- Ahozko literaturaren testuak entzuteko jarduerak burutzea, gure errealitate kultural eta artistikoa balioesteko.
- Historia-, arte-, hiri-ibilbideak eta bidaiak egitea, eta, horrez gain, museoetara eta erakusketetara bisitak egitea.
- ...

## **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna**

Gaitasun hau gizarte-errealitatearen eta ikasleen intereseko gaien inguruko proiektuak proposatuz gara daiteke, baita munduan diren gatazken eta gai unibertsalen inguruan hausnartuz ere; gai horietako asko testu literarioetan ageri dira. Halaber, gizarte-abileziak (gizarte-komunikazioko arauak, lankidetzan aritzekoak) garatzea bultzatu eta sustatu behar da gelan, eta, horrekin batera, hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera baikorrak. Izan ere, hizkuntzaren bidez transmititzen dira, alde batetik, munduko ohituren inguruan ditugun irudi estereotipatuak, eta, bestetik, jarrera baztertzailak. Horien guztien gainean hausnartuz ekin diezaikegu gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeari.

Horretaz gain, gaitasun hau garatzeko, jarduera hauek proposa daitezke:

- Gizarte-gaien eta gaurkotasuna duten gaien inguruko proiektuak egitea.

- Ikasgelan interakzioa erabiltzea eta ikasleekin negoziatzea, ikasteko estrategia gisa.
- Gizarteko komunikazio-arauak errespetatuz, komunikazio-trukeetan parte hartzea, hizkuntzekiko eta hitzunikiko jarrera baikorrak sustatze aldera, batez ere hizkuntza gutxituen kasuan.
- ...

#### 4. OINARRIZKO GAITASUNEN ETA CURRÍCULUMENKO ELEMENTUEN ARTEKO LOTURA

Oinarrizko gaitasunak curriculumeke osagai guztietan islatzen dira: helburuetan, edukietan eta ebaluazio-irizpideetan. Euskara eta Literatura ikasgaiaren helburu orokorrak gaitasun gisa daude zehaztuak eta adieraziak.

Helburuetan, oinarrizko gaitasunak antzeman daitezke, taula honetan ikusten den bezala:

	Zientzia-, teknologia- eta osasun- gaitasuna	Ikasten ikasteko gaitasuna	Matematikarako gaitasuna	Hizkuntza- komunikazio- gaitasuna	Informazioa gaitasuna	Gizarterako eta komunikazio- gaitasuna	Giza eta arte- kulturgaitasuna	Norberaren gaitasuna
1. Hizkuntza erabiltzen den hainbat eremutatik jasotako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, egoera horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.								
2. Ahoz eta idatziz egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta elkarrekintzan jarduteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrerarekin; kontuan izan behar dira hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak, komunikazio-premiei eraginkortasunez erantzuteko.								
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara erabiltzea bermatzeko.								
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleantzasuna eta kultura-aniztasuna ezagutzea eta interpretatzea, hori baita hizkuntza-aniztasuna eta kultura-aberastasuna balioesteko bidea.								
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar diren komunikazio-estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioak eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.								
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko, eta transferentzia negatiboak saihesteko.								
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoaz erabiltzea, eskola-jardueran ahozko eta idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.								

8. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, ikasleek ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko duten ahalmenean gero eta gehiago sinetsiko dute.							
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak, eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.							
10. Literatura-ondarea balioestea, norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturak eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurri eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.							
11. Testu eredugarriak eta norberak hautatutako testuak irakurri eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.							

Koadro honek, berriz, oinarrizko gaitasunen, curriculumeko ebaluazio-irizpideen eta helburu orokorren arteko erlazioa islatzen du. Adibide gisa, hiru atal hauen arteko erlazioa adierazten da: DBHko 1. mailako 1., 13., 14. eta 15. ebaluazio-irizpideak; ikasgaiaren lehenengo helburua, eta bi atal horien bidez garatuko diren oinarrizko gaitasunak.

### DBHko 1. maila

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	IKASGAIAREN HELBURUAK	ONARRIZKO GAITASUNAK
<p>1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea, bai ikaslearen esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarriketetan. Horrela, ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak hautemateaz gainera, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.</p> <p>13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jardueraren premiei erantzuteko behar den informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.</p> <p>14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzean (autoebaluazioa eta koebaluazioa), parte-hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.</p> <p>15. Ikasleak dituen literatura-ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu-zatiak ulertzea.</p>	<p>1. Hizkuntza erabiltzen den hainbat eremutatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, egoera horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p>	<p>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna</p> <p>Giza eta arte-kulturarako gaitasuna</p> <p>Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</p> <p>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</p>



## 5. ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

### 5.1. Metodologia

#### Zein da ikuspegi metodologiko egokiena ikasgai honetan?

Ikuspegi komunikatiboa. Hizkuntza erabiltzen ikasi eta irakasteko, ikaskuntza aktiboa behar da, ikasleek horren bidez, izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta batez ere ezagutzak aplikatzen jakin dezaten. Beraz, hizkuntza ikasteko eta irakasteko parametroak aldatu egin behar dira, eta hizkuntzaren deskripzioaren eta ezagutzen transmisio eta jasotze hutsaren planteamendu didaktikoetatik beste planteamendu metodologiko batera lerratu: ikuspegi komunikatibora, hain zuzen ere.

#### Zergatik eta zertarako ikuspegi komunikatiboa?

Hizkuntza komunikazio- eta irudikapen-tresna delako eta ikasleek komunikazio-gaitasuna garatuko badute hizkuntza erabili egin behar dutelako. Horretarako, ikasleek, beren komunikazio-beharretan oinarrituta eta testuinguru baten barruan, entzun, idatzi, hitz egin, solasean aritu eta irakurri egin behar dute.


Hartara, ahozko eta idatzizko testu errealak, hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutakoak, ulertzea, interpretatzea eta ekoiztea izango da ikaste-prozesuaren ardatza, eta, prozesu horretan, hizkuntzaren gainean hausnartzea ere txertatuko da.

Kontuan hartu behar da komunikazioa ez dela soil-soilik ahozko eta idatzizko testuak ekoiztera mugatzen; prozesua ere bereganatzen du, helburu zehatza duen prozesua, hain zuzen ere. Eta prozesu horri lotuta, ez da nahikoa ikasleek hizkuntzari buruzko datu solteak berenganatzea –lexikoa, arauak, funtzioak...–; ezinbestekoa da ezagutza horiek gogoetaren bidez prozesuan txertatzea eta erabiltzen ikastea:

- Hizkuntza erabiltzeak eragiten du hizkuntza ikastea.
- Ikasleen komunikazio beharrak, interesak eta motibazioa dira ikaskuntzaren bultzatzaileak.
- Hizkuntza ikastea ikasleak eraiki behar duen prozesua da.

Horrek guztiak hau eskatzen du: ataza errealak abiapuntutzat hartuta, hizkuntzaren gaineko hausnartze-lana atazaren helburuaren mende jartzea, xede komunikatibo erreal eta funtzionalei erantzuteko.

Ikuspegi metodologiko honek erabateko eragina izango du hainbat esparrutan; besteak beste, ikastaldearen dinamikan, helburuen formulazioan, material didaktikoaren hautaketan... Beraz, oso kontuan hartu behar dira grafiko honetan adierazi eta hurrengo puntuetan azalduko diren aldagaiak:



## 5.2. Irakaslearen eta ikaslearen eginkizunak

### Zein dira irakaslearen eginkizunak?

Ikasleen laguntzaile eta gidari izatea.

Egun, informazioaren gizartean bizi garelarik, irakaslearen egitekoa aldatu egin da, eta ezagutzaren transmisio-igorle eta azalpen-emaile hutsa eta bakarra izatetik ikasleen ikaste-prozesuan laguntzaile eta gidari izatera pasa da.

Ikasleek burutu ditzaketen erronkak planteatzea, eta egitekoa horien arabera planifikatzea.

Irakasleak hautatu, planifikatu eta proposatu egiten ditu edukiak. Berak du ikasleek ikasteko egin behar duten prozesuaren erantzukizuna. Ikuspegi komunikatiboaren arabera, gaitasunak garatzen laguntzeko, irakasleak ikaskuntza-egoera irekiak abiarazi behar ditu, ikasleen interesak, arazoak eta zalantzak kontuan harturik, eta, horrez gain, ikasleek burutu ditzaketen erronkak planteatu, gatazka-egoerak bilatu eta horiek ebazteko prozesuak jarri behar ditu abian.

Ikasleen gaitasunen eta ahalmenen araberako prozesuen kontrola ziurtatzea.

Irakasleak erregulatzen ditu ikaste-prozesuak, ikastaldearen gaitasunen eta ahalmenen arabera; beraz, kontuan izan behar ditu ikasleen heterogeneotasuna eta aniztasuna, eta hori praktikan islatu. Ikasle guztiei aukera eman behar die proposatutako helburuak erdiesteko, eta ahaleginak egin behar ditu ikasle bakoitzarengandik ahal denik eta etekinik handiena lortzeko.

Ikasleekin komunikatzeko bideak ahalbidetzea.

Ez da ahaztu behar ikasgelan sortzen diren harremanek, ikasleek elkarrekin eta irakaslearekin dituztenek, eragina dutela komunikazioan eta horren barnean ezartzen diren lotura afektiboetan. Lotura horien arabera sortuko da lankidetzarako eta elkarbizitzarako giro aproposa. Jarrera aktiboa sustatzeko, irakasleak parte-hartzera bultzatu behar ditu ikasleak, eta giro afektibo eta motibagarria sortzeko ahalegina egin

behar du, ikasgelan interakzioa eta komunikazioa ahalbidetzen duten egoerak eragiteko.

Ikasleen autonomia eta autoerregulazioa bultzatzea.

Ikasleei lagundu egin behar die autonomiaren eta autoerregulazioaren bidetik, eta, besteak beste, haiekin negoziatu egin behar du, komunikatzeko eta ikasteko tekniketari trebatu egin behar ditu, eta ebaluazioan inplikatu, autoebaluazioaren eta koebaluazioaren bidez.

Ikasleentzako eredu eta erreferentzia dela kontuan izatea.

Irakaslea hizkuntza-eredu da ikasleentzat, eta, beraz, hizkuntza egokia, jatorra, zuzena eta aberatsa erabili behar du. Horretaz gain, euskarak gizartean presentzia urria duenez, kontuan hartu behar du bere hizkuntza-eredua dela ikasleen erreferentzia nagusia.

Halaber, irakaslearen jarduteko erak, haren hizkuntzarekiko jarrerak eta jokabideak eragin zuzena dute ikasleek hizkuntza ikasteko eta berenganatzeko orduan; izan ere, ikasleek gelan ikusi, bizi eta sentitutakoa eredutzat har dezakete etorkizunean hizkuntza erabiltzean edo irakasle gisa jardutean.

Hizkuntzarekiko jarrera baikorra sustatzea.

Hizkuntzarekiko nolako jarrera izan, halako portaera eta erabilera. Beraz, ikasleen motibazioan eta interesean eragiteko, eta haiek egoera errealean eta eskola-esparrutik kanpokoetan euskara erabiltzeko, jarrerak duen garrantziaz konturatu behar du irakasleak, eta ikasleen hizkuntza-jarrerak modu sistematikoan landu.

## **Zein dira ikaslearen eginkizunak?**

Hizkuntza erabiltzea eta erabileraren inguruan gogoeta egitea.

Ikasleek hizkuntza erabili egin behar dute, hau da, irakurri, entzun, idatzi, hitz egin eta elkarrizketan aritu behar dute, eta erabilera horren gainean gogoeta egin.

Hizkuntzarekiko jarrera baikorretatik abiatzea, hizkuntza erabiltzeko motibazioa eta interesa pizteko.

Hizkuntza erabiltzen ikastea estu lotuta dago ikasleen motibazioarekin eta interesarekin. Aldi berean, hizkuntzarekiko jarrera baikorrak funtsezkoak dira motibazioa eta interesa bultzatzeko.

Hizkuntzaren ikaskuntzan ardura hartzea, eta gero eta autonomoagoa izatea.

Ikaslea da bere ikaste-prozesuaren protagonista nagusia; izan ere, berak eraikitzen du ikaskuntza, irakasleak ematen dion laguntza eta gidaritza baliatuta.

Horregatik, ikasleak bere ikaste-prozesuaren ardura hartu, eta, helburu, behar, gaitasun eta abarren arabera, prozesua erregulatu ikasi behar du, autoerregulazioa ikasten ikasteko funtsezko alderdia baita. Ikasten dakien ikasleak badaki egitekoa helburu baten arabera planifikatzen eta akatsak, zailtasunak eta hobetu behar dituen alderdiak identifikatzen. Gainera, ikerketek erakutsi duten moduan, ikasten ari dela jabetzeak eragin zuzena dauka ikaste-prozesuaren motibazioan.

Beraz, autonomiaz jokatzeko, zeregin hauek egiten ikasi behar du ikasleak:

- Egitekoaren xedea zehazten, hau da, egin behar duena zertarako egiten duen zehazten. Negoziazio- eta motibazio- jarduerak laguntzen dute egiteko horretan.
- Helburua lortzeko, egitekoa planifikatzen eta antolatzen. Horretarako, kontratu didaktikoa, talde-lana planifikatzeko orriak... erabil daitezke.

- Prozesua ondo gauzaten ari den ala ez jakiteko irizpideak identifikatzen, autoerregulaziorako proposamenen bidez. Horretarako, lagungarriak dira kontrol-orriak eta autoebaluazio- zein koebaluazio-txantiloiak.

Zerikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugulana?
<input type="checkbox"/> Gertaerak modu adierazkorrean kontatzen. <input type="checkbox"/> Ahozko narrazioen ezaugarriak antzematen.. <input type="checkbox"/> Irrati-kronika taldeka ematen. <input type="checkbox"/> Grabazioak egiten. <input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> Testuak (idatziak eta ahozkoak) aztertu eta ozenki irakurri. <input type="checkbox"/> Testuak ikaskideei kontatu. <input type="checkbox"/> Arrazoitutako azalpenak eman ikaskideei. <input type="checkbox"/> Grabazioak egin. <input type="checkbox"/> Grabazioak berrikusi eta zuzendu, baita ikaskideenak ere. <input type="checkbox"/> Taldeka eztabaidatu, ados jartzeko. <input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> Auto-ebaluazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Ikaskideen ebaluazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Egingo dugun grabazioaren bidez. <input type="checkbox"/> Probatxo baten bidez. <input type="checkbox"/> Eta jarrera kontuan hartuz, honela: <input type="checkbox"/> Parte-hartze aktiboaren bidez. <input type="checkbox"/> Talde-lanetan kideak errespetatuz. <input type="checkbox"/> ...

KONTRATUA:

**Nire taldekoek eta nik neuk sekuentzia honetan jarduera hauek egingo ditugu:**

---



---



---



---

Adierazten dut kontratu honetan adierazitakoa beteko dudala. Horretarako, sinatu egiten dut, nire taldekideekin batera.

Tokia eta data:

Irakaslearen sinadura

Ikasleen sinaturak

Negoiazio-jarduera eta kontratu didaktikoa

### 5.3. Ikastaldea kudeatzea

#### Nola kudeatu ikastaldea?

Hizkuntzak erabiliz eraikitzen dira: besteekin solasean arituz, entzunez, hitz eginez, irakurriz eta idatziz. Horrenbestez, ikastaldea kudeatzeak bost trebezia horiek garatzea ahalbidetu behar die ikasleei.

Irakaskuntza aktiboak irakaslearen eta ikasleen arteko komunikazioa bultzatu behar duenez, ikastaldearen dinamika aldatzea dakar; beraz, taldekatze modu bat baino gehiago eta ikasleen esku-hartzeak erraztuko dituen antolamendua behar da.

Ikastaldea kudeatzeari dagokionez, ikaskuntza aktiboa eta hizkuntzak erabiltzea sustatzeko, iradokizun hauek izan behar dira kontuan:

- Ikasgelan giro egokia sortzea, ikasleen artean giro afektibo aproposa lortzeko eta kortesia-arauak zaintzeko. Giza harreman eraginkorrak izateko, gizarte-komunikaziorako ezinbesteko arauak landu behar dira hizkuntza-saioretan: hitz egiteko txandak antolatu, besteek esandakoa onartu, doinu egokia zaindu...
- Hizkuntzak ikasteko zein erabiltzeko motibazioa bultzatzea: helburuak jakinaraztea; lana gauzatzeko, negoziazio-jarduerak proposatzea; ikasleei hitza ematea... , eta

batez ere, ikasgelan proposatzen diren jarduerak benetako komunikazio-xedea izatea.

- Norberaren hizkuntzarekiko errespetua bultzatzea. Egoera eleanitzetan hizkuntza propioa balioestea da eskolan lantzen diren beste hizkuntzak ikasteko abiapuntua. Hiztuna darabilen hizkuntza-aldaerarekin (geografikoa nahiz soziala) identifikatu ohi da. Horregatik, ezinbestekoa da norberaren hizkuntza-aldaera balioestea, beste erabilera batzuk (formalagoak edo, besterik gabe, bestelakoak) erabiltzen ikasteko.
- Hizkuntzak ikasi edo erabiltzeko zailtasunak dituzten ikasleekiko errespetu-giroa sortzea. Garrantzitsua da ikasle guztiak eroso sentitzea hizkuntza horretan jendaurrean aritzeko orduan.
- Ikasle-taldeak era askotara antolatzea. Jardueren arabera eta ikasleen ezaugarriak kontuan izanik, talde heterogeneoak eta behin-behinekoak –jarduerak irauten duen bitartean arituko dira elkarrekin– eratzea bultzatu behar da.
- Ikaskuntza autonomia bultzatzea eta, beraz, transmisio hutsezko ikaskuntza mugatzea, irakasle-ikasleen ohiko eginkizunak aldatzea...
- Ikaskuntzari lotutako itxaropena sustatzea: ikasle guztiek hizkuntza ondo erabiltzen ikasiko duten itxaropena izatea eta, beraz, planteatutako erronkei ikasle guztiek erantzun ahal izango dietela transmititzea...

#### **5.4. Denbora eta tokia kudeatzea**

##### **Nola antolatu denbora eta tokia?**

Denbora kudeatzeak eta tokia antolatzeak ikasteko eta irakasteko prozesua garatzen lagundu behar dute. Eskola-esparruko elementuak egituratzeko beharrezanetik sortzen da denbora eta espazioa osotasun gisa antolatzea. Horregatik, antolatzeko erabiltzen diren egiturak malgutu egin behar dira, didaktikari lotutako estrategiei lekua emateko. Denbora eta tokia antolatu ahal izateko, ikastetxeek autonomiaz jokatzeko aukerak behar dituzte.

##### **Garrantzitsua al da denbora kudeatzea?**

Alor guztietan denbora kudeatzen jakitea garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da hizkuntza-alorrean; izan ere, hizkuntzak ikasteko, ezinbestekoa da denbora izatea. Luzaroan eta astiro garatzen den prozesua da, eta ikastetxe barruan zein kanpoan eraikitzen da.

Ordutegia antolatzean, beraz, iradokizun hauek izan behar dira kontuan:

- Bereziki irakurtzeari denbora ematea egunero, euskaraz zein gaztelaniaz, eta hori ikasleen ordutegietan islatzea.
- Euskara eta Gaztelania ikasgaien ordutegiak bateragarri egitea. Proiektuen eta jardueren arabera, zenbaitetan bi ikasgaien orduak batzeko aukera ere planteatu daiteke, edota saio bikoitzak, partekatuak... egitea.
- Denbora kudeatzeko orduan, malgu jokatzeko eta, batzuetan, saioen iraupena aldatzea.

Bestalde, eskola-saioak antolatzean, iradokizun hauek hartu beharko liriateke kontuan, besteak beste:

- Ikasleei hizkuntza erabiltzeko denbora ematea. Hizkuntza erabili egin behar dute – haiek ari dira ikasten–; beraz, irakasleak ezin du saioen denbora azalpenak emanez xahutu.
- Jarduera askotarikoak (elkarrizketa, eztabaida, aurkezpena...) egiteko denbora ematea.
- Denbora ondo kudeatu eta banatzea, hizkuntza-trebetasunak landu eta horiei lotutako jarduerak gauzatu ahal izateko: ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko, ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko, hizkuntzaren gainean hausnartzeko...
- Denbora ondo kudeatzeari garrantzia ematea eta, adibidez, txandaka, denei parte-hartzeko aukera ematea.

### **Garrantzitsua al da tokia antolatzea?**

Tokia modu dinamikoan antolatu behar da –malgu eta aldatzeko aukerak emanez–, talde-harremanak sustatzeko: banaka zein taldeka, tartean elementu mugikorrek direla...

Ikasgelaren erabilerari dagokionez, hizkuntza-gela antolatu beharko litzateke, eta bertan ikasgaia lantzeko materialak, hiztegiak, gelako liburutegia, ikus-entzunezkoak, multimedia-tresnak... eskuragarri izan.

Ikasgelaren estetikari lotuta, bestalde, ikasleen ekoizpenak ere agerian jarri beharko lirateke, eta ikasgela ekoizpen horiekin hornitu, taldearen partaidetza- eta kohesio-gune bihurtzeko.

Beste gune batzuen erabilerari dagokionez, berriz, kontuan hartu behar da hizkuntzaren ikaskuntza ez dela ikasgelan bukatzen; horregatik, iradokizun hauek hartu beharko lirateke kontuan:

- Ikastetxe barneko eta ikasgelatik kanpoko espazioak erabiltzea; esaterako, ikasgelak, liburutegia, ordenagailuak, aretoak...
- Ikastetxetik kanpoko espazioak erabiltzea, ikasitakoaren funtzionaltasuna sustatzeko; horretarako, ikasgaien arteko harremanak bultzatu daitezke eta proiektu globalak proposatu.

## **5.5. Baliabideak eta materialak**

### **Zein dira hizkuntza saioetan erabili behar diren baliabideak?**

Hizkuntza-saioetan erabiliko diren baliabideak “hizkuntza-gelan”, denek partekatu eta erabiliko dituzten guneetan (liburutegia, informatika-gela...), edota ikasgelan bil daitezke; baina, nolatan ere, ikasleen komunikazio-beharren arabera bilduta eta antolatuta egon behar dute, egungo informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) eskaintzen dituzten aukerak ere kontuan harturik.

Halaber, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntza jakin bati berari soilik dagozkion baliabideak (hiztegiak, hiztegi etimologikoak, estilo-liburuak...), eta zein hizkuntza batean baino gehiagotan erabili daitezkeenak. Baina baliabide guztien aniztasuna ziurtatu behar da beti, kopuruaren eta kalitatearen aldetik. Bestalde, Internet, baliabide askotarikoen eta eguneratuen iturria da.

Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegiak kontsulta-material ugari eduki behar dute, batez ere ikasgelan lantzen diren hizkuntzetan idatzitako liburuak, ikasleen zaletasun eta interesak aintzat harturik; kalitatea, aniztasuna eta egokitasuna dira horretarako

irizpide. Bestalde, aldiro argitaratzen diren testuak, eguneroko prentsa eta prentsa digitala edukitzea ere komeni da.

Ikasgeletan, tresna egokiak izatea komeni da, ahozko eta idatzizko testuak entzuteko eta ikusarazteko, eta, horretaz gain, informazio-iturriak kontsultatzeko, informazioak eskuratzeko... Gainera, ikasgai guztietarako oso baliabide erabilgarriak dira. Ikasliburuak, berriz, kontsulta-liburu moduan erabili behar dira, eta ikasgelako liburutegian eduki.

Formatu guztietako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak eduki behar dira ikasgelan. Egun, IKTek aukera ezin hobea ematen dute ikus-entzunezko baliabideak eskuratzeko eta biltzeko; eta, horretaz gain, idatzizko testuen euskarri izateko. Hala ere, testu idatziek ageri-agerian egon behar dute ikasgelan.


Ahozko testuen corpusean, bestalde, euskalkien laginak eta eredu errealak izatea komeni da, ikasleek horiek ezagutzeko eta lantzeko aukera izan dezaten. Horretaz gain, ahozko testuen aldaera informalek eta erregistroek ere lekua izan behar dute.

Ikastetxean ikasgai diren atzerriko hizkuntzen eta hizkuntza ofizialen ohiko materialez gain, inguruan presentzia duten hizkuntzen laginak izatea komeni da, batik bat ikastetxeko etorkinen hizkuntzenak.

Bestalde, komunikazio-proiektuen helburu errealari eusteko, ikasleen ahozko eta idatzizko ekoizpenak ikastetxeko eta ikasgelako baliabide bihur daitezke, eta, horrela, materialen biltegia hornitu.

Esandako guztiaz gain, kontuan hartu behar da hizkuntzak erabiltzea ikastetxetik harago doala; horregatik, beste leku batzuetako hizkuntza-moldeetara hurbildu behar ditugu ikasleak, eta eraman egin behar ditugu hitzaldietara, bertso-saioetara zein lehiaketetara, ipuin-kontalariak entzutera edo antzezlanak ikustera, irrati-saioetan parte hartzera, euskara indartzeko barnetegietara eta udal liburutegiko liburuak kontsultatzera... Horiek guztiak hizkuntza erabiltzea sustatzeko baliabide ezin hobek dira.

Era berean, baliabide eraginkorra da hizkuntza-erabilera askotarikoak bai eta beste euskalki batzuetan mintzo diren pertsonak ere gelara eramatea, interakzio aberatsak sortzen baitira ikasleekin.



## 5.6. Ikasgelako jarduerak antolatzea

### Nola antolatu ikasgelako jarduerak metodologia aktiboaren ikuspuntutik?

Metodologia aktiboak hauxe eskatzen du: jarduerak sekuentzia didaktikoen bidez antolatzea. Bertan, jarduera guztiak helburu jakin bat lortzeko batasuna ematen dien ardatz baten inguruan antolatuta daude.

Komunikazio-proiektuak izeneko proposamen didaktikoetan, jardueren sekuentzia bat edo gehiago biltzen dira, eta, horietan, ikasleek komunikazio-helburu erreala duten ahozko zein idatzizko testuak ekoitzi behar izaten dituzte. Jarduerak hobetu nahi den hizkuntzaren erabileraren inguruan egituratzen dira; hori da, hain zuzen, proiektuaren motorra eta azken helburua.

### Komunikazio-proiektuen ezaugarriak


Komunikazio-proiektuetan, ekoitzi behar den testuaren forma eta edukia lantzeko jarduerak txertatzen dira. Edukia curriculumeko gaietako bat izan daiteke, edo beste ikasgai batekoa, edo, bestela, ikasleen intereseko edozein gai.

Proiektuetan, hizkuntza-trebetasun guztiak lantzeko jarduerak proposatzen dira; beraz, proiektuek ahozko eta idatzizko hizkuntza lantzeko aukera ematen dute, eta edozein testu proposa daiteke azken ekoizpen gisa. Horretaz gain, ulermen- eta ekoizpen-prozesuei lotutako lan koherentea ahalbidetzen dute proiektuek, ulermena hobetzeak ekoizpena hobetzea dakarrelako, eta alderantziz.

Komunikazio-proiektuetan, hizkuntza erabiltzea eta erabilera horren gainean hausnartzea banaezinak dira, gogoetarik egin ezean ez baitago erabilera hobetzerik.

Ikasleen azken ekoizpenak komunikazio-egoera erreal eta zehatzetan txertatu behar dira, ikasleei ezagutarazi eta haiekin negoziatu ondoren. Helburuari, euskarriari, argitalpen-lekuari... dagokienez, egoera komunikatibo anitz eta askotarikoak proposatu behar dira, eta ikasturteetan eta hezkuntza-etapetan zehar antolatu eta banatu ikasleek beren testu- eta hizkuntza-errepertorioa zabaldu ahal izateko.


Egungo gizartean, IKTek proiektuak gauzatzea eta horien berri ematea errazten dute, baina modu etikoan eta erantzukizunez erabili behar dira, proiektuak gauzatzeko, zuzentzeko eta aurkezteko orduan.





## Komunikazio-proiektuen faseak

Hauek dira komunikazio-proiektuen faseak:



Proiektua planteatzen denean, oso garrantzitsua da aurrez zehaztu diren helburu didaktikoak, ebaluazio- irizpideak eta adierazleak ikasleei jakinaraztea eta, negoziazio prozesu baten ondoren, haiek onartzea.

Proposatu nahi diren ahozko edo idatzizko testuaren helburu didaktikoak, ikasteko edukiak eta ebaluazio-irizpideak curriculumaren arabera hautatuko dira.

### 5.7. Edukiak hautatzeko eta lehenesteko irizpideak

#### Zein dira oinarrizko edukiak?

Prozedurazko edukiak dira proposamen didaktiko guztien ardatz. Kontzeptuzko edukiak, berriz, hizkuntzaren erabileraren inguruan hausnartzeko eta erabilera hobetzen laguntzeko tresnak dira. Eta jarrerazko edukiek, bai hizkuntzen eta hiztunen ingurukoek, bai ikasprozesuen ingurukoek, sekuentzia didaktiko guztietan agertu behar dute.

Oinarrizko edukiak ahozko eta idatzizko testu-generoak dira; horiek etaparen, mailaren eta hizkuntzaren arabera hautatu behar dira, aurrez ezarritako helburuak lortzeko.

	Argudio-testua	Narrazio-testua
Literatura	Testu osoak edo testu zabalagoetan txertatuak...(hitzaldiak, eztabaidak, saiakerak...)	kontakizun laburra, eleberria, ipuina, biografia, autobiografia, kondaira, olerki epikoa, erromantzea...
Komunikabideak	Iritzi-artikuluak, zuzendariari gutuna, telebistako debatea, mahai-ingurua...	Albistea, erreportajea, kronika, filma, telebista-saioa, irrati-nobela...

Testu-generoen antolaketa. Eredu bat

Testu-tipologiak honetan laguntzen du: testu-generoen aniztasuna hizkuntza guztietan antolatzen, sailkatzen eta hautatzen. Testu-generoak sailkatzeko eta hautatzeko, ikasleen komunikazio-beharrei eta generoen erabilera-eremuei erreparatuko zaie.

Komunikaziorako gaitasuna garatzeak hau eskatzen du: proiektu guztietan, azpigaitasun soziolinguistikoa, azpigaitasun diskurtsiboa eta azpigaitasun linguistikoa hobetzera bideratutako edukiak hautatu eta jorratzea, ikasleek sortu behar dituzten testuak egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak izan daitezzen.

Programazioa egitean, beraz, kontuan hartu behar da zein diren hizkuntzen artean transferi daitezkeen edukiak eta zein diren hizkuntza bakoitzak dituen berariazko ezaugarriak; horrela, ikasleekin ikasgelan egiten den lanari etekina aterako zaio, eta denbora aurreztuko da, errepikapen aspergarriak eta kontraesanak saihestuko baitira.

Hizkuntzen artean transferi daitezkeen edukiak Euskara eta Gaztelania ikasgaien artean banatu, eta, behar denean, indartu egingo dira. Horretarako, baina, edukiak hautatzeko eta eduki horiek hizkuntzen artean banatzeko irizpideak zehaztu behar dira.

### **Nola hautatu edukiak metodologia aktiboaren ikuspuntutik?**

Diziplinaren ardatzak hizkuntzak deskribatzeko balio badu ere, edukiak antolatzeko zaharkituta dago; izan ere, ez dator bat metodologia aktiboarekin eta proiektuen bidezko lanarekin. Beraz, oztopatu egiten du hizkuntzak ikasteko eta irakasteko helburua, hau da, hizkuntza hobeto erabiltzea.

Euskara eta Literatura ikasgaien landuko diren edukiek eta horien progresioak aurrez zehaztutako ikaskuntza helburuei lotuta egon behar dute. Horregatik, hizkuntzen trataera bateratuaren bidetik, Euskara eta Gaztelania arloetan jorratuko diren edukiak zehazteko abiapuntua hizkuntza bakoitzean landuko diren testu-generoen hautaketa izango da. Testu-generoak hautatzeko irizpide nagusia hau da: testuak ikasleentzat funtzionalak eta esanguratsuak izatea.

Nolanahi ere, edukiak aukeratzeko abiapuntu nagusiak hauek dira: ikasleen interesak, beharrak, garapen kognitiboa eta komunikatzeko gaitasuna.

Edukiak hautatzeko progresioan, irizpide hauek hartu behar dira kontuan: gaiek ikasleentzat duten hurbiltasuna eta interesa, testuen maila abstraktua edo konkretua, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko behar diren prozesu kognitiboen konplexutasuna. Hala ere, hizkuntzaren ikaskuntzak duen izaera helikoidalak –sarri, atzera egin behar izaten dugu gero aurrera egiteko– hainbatetan testu-genero berberak lantzea eskatzen du.

Egungo curriculumek edukien progresiorako gida-lerroak ematen dituzte, batez ere prozedurazko edukiei dagokienez. Curriculumeko edukiak, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak gero eta komunikazio-egoera konplexuagoen bidez antolatzen dira.

Hezkuntza-etapa bakoitzean eta hizkuntza bakoitzean, ezinbestekoa da era askotako eduki diskurtsiboak, lexikoak, sintaktikoak, morfologikoak... lantzea, horiek guztiak behar-beharrezkoak baitira hizkuntza erabiltzeko.

### **5.8. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozkoaren ulermena**

Oro har, eskolak ahaztu samar izan du ahozkoa egunero-egunero lantzea. Hori gertatu da, alde batetik, hizkuntza idatziari lehentasuna eman zaiolako, eta, bestetik, adibide aztergarriak eta eredugarriak biltzea eta ikasleen ekoizpenak jasotzea zaila izan delako. Egun, web 2.0k eta IKTek trebetasun hau lantzeko baliabideak eskueran jartzen dituzte, ahozko testuak grabatzeko, entzuteko eta jasotzeko.

## Zer egin ahozkoaren ulermena lantzeko?

Kontuan hartu ahozko testuen berezitasunak.

Ahozko testuak ulertzeko prozesua idatzizko testuak ulertzeko prozesuaren antzekoa da; hala ere, baditu zenbait berezitasun, batez ere ahozko testuen informazioa denbora errealean prozesatu beharra dagoelako. Gainera, zaratak, distortsioek eta interferentziek zaildu egiten dute ulertzea. Grabatutako testuei dagokienez, berriz, zenbat eta solaskide gehiago izan eta haien ahotsa zenbat eta antzekoagoa izan, are zailagoa da solaskide bakoitza identifikatzea eta haren hizkera ulertzea. Beste kontu hauek ere zailtzen dute ulertzea: diskurtsoak gainjartzeak; murrizketa fonetikoak; hizkuntza-erregistroa, euskalkia edota azentua ez ezagutzeak; bizkor hitz egiteak; intonazio monotonoa izateak; behar bezain ozen ez hitz egiteak; etab.

Helburuaren garrantzia azpimarratu.

Entzute-jarduera zentzua eta helburua emango dion testuinguruan txertatu behar da, eta ez da ahaztu behar gainerako ikasgaietan ere garrantzia eta presentzia izan behar duen trebetasuna dela.

Entzun helburu jakin batekin entzuten da: esaten denaren funtsaz jabetzeko, informazio espezifiko lortzeko, informazio inplizituaz ohartzeko..., eta helburu horiek estrategia jakin batzuk erabiltzea eskatzen dute.

Bestalde, entzute-jarduerak ez dira modu isolatuan proposatu behar, baizik eta sekuentzia didaktikoen edo komunikazio-proiektuen baitan; izan ere, ahozkoaren ulermen-jarduerak beste lau hizkuntza- trebetasunak lantzeko jarduerari lotuta egon ohi dira: ahozko azalpen batean, ikasleek informazioa erabiliko dute; edo hizkuntzaren musikaltasunaz hausnartuko dute, eta soinuen eufoniarekin jokatu. Helburuak, zertarako entzuten ari garen jakiteak, alegia, erabateko garrantzia du: zer helburu izan, halakoa izango da entzute-lana.

Jarrera baikorrak sustatu.

Funtsezkoa da jarrerak lantzea. Hizkuntzarekiko jarrera baikorrak sustatu behar dira, ikasleek senti dezaten hizkuntza eta hizkuntza-erregistro askotariko ahozko testuak – bertako euskalkiak, besteak beste– ulertzea beharrezkoa dela. Era berean, ikaskideen ahozko ekoizpenak entzun eta baloratzeko unean, ikasleen arteko errespetu- eta lankidetzagiroa eta ikasleen aniztasunarekiko jarrera baikorrak sustatu eta landu behar dira.

Kontuan izan irakaslea hizkuntza-eredua dela.

Irakaslea hizkuntza-eredua da ikasleentzat, batez ere euskararen presentzia desabantailan dagoen tokietan, gure hizkuntza ofizialen egoera soziolinguistikoa halakoa baita. Horrelako egoeretan, irakaslea da hizkuntza-eredua, eredurik hurbilena eta, askotan, ikasleen erreferentzia ia bakarra. Beraz, hizkuntzaren ezaugarri hauek zaindu behar ditu: jarduteko era, estiloa, erregistroa, esateko moduak, aberastasuna, egokitasuna eta zuzentasuna.

Horretaz gain, ikasleen ahozko ulermena hobetzen laguntzeko, komenigarria litzateke gainerako ikasgaietako irakasleen diskurtso akademikoa egituratzeko jarduera-protokolo bat erabiltzea.

Entzute-prozesuari lotutako estrategiak landu.

Ahozkoaren ulermen-prozesuak, idatzizkoarenak bezala, hiru une ditu, eta horietako bakoitzak estrategia bereziak eskatzen dizkie ikasleei:

**Entzun aurretik:**

- Entzungo duten testuaren gaia aipatzea.
- Aurrezagutzak gelan plazaratzea.
- Entzuketaren helburua azpimarratzea.
- Ongi zehaztea zer egingo duten entzuketatik jasotako informazioarekin.
- Ulertzen zailak egin dakizkiekeen zenbait hitzen inguruko argibideak ematea.
- ...

**Entzun bitartean:**

- Entzuketeta-prozesuan, informazioa eta datuak jasotzeko teknikak erabiltzea: oharra idatzi, txantiloak bete, lehendik planteatutako galderak erantzun...
- Hipotesiak adierazi eta egiaztatzea.
- Entzuketeta-prozesuan sortutako zalantzak argitzea eta izandako zailtasunei erreparatzea.
- ...

**Entzun ondoren:**

- Entzundakoa interpretatzea eta egiaztatzea.
- Informazioa berrantolatzea, eskemen edota laburpenen bidez.
- Informazioa erabiltzea, aurrez ezarritako helburuaren arabera.
- ...

**Nolako testuak entzun behar dituzte ikasleek?**

Ahozko testuak ulertzea hizkuntzakoak ez diren gainerako ikasgaietara eta ikasgelatik kanpoko jardueretara ere zabaltzea behar da; izan ere, ahozko hizkuntza nonahi dago, nonahi topa daiteke, eta nonahikotasun hori baliatu egin behar da.

Hizkuntza-saioetan, ahozkoaren ulermen-jarduerak gainerako hizkuntza-trebetasunekin batera landu behar dira, komunikazio-proiektu zabalagoetan. Horietan, ahozko testu errealak eta ikasleen adin eta interesetatik gertu dauden testuak proposatu behar dira: ikasleek ulertzeko modukoak, baina, aldi berean, erronka kognitiboa eskatzen dutenak.

Bestalde, helburuari, erregistroari, euskalkiari, euskarriari, testu-tipologiari eta testu-generoari dagokienez, testuek askotarikoak izan behar dute, eta ezin dira ahaztu ahozko literaturaren testuak.

Ikasgelatik kanpo, berriz, era askotako jarduerak planifika daitezke ahozkoaren ulermenari laguntzeko: antzezlanak, errezitaldiak, bertso-saioak eta lehiaketak antolatu nahiz haietara joan, bisita gidatuak egin... Horrekin batera, euskararen eta euskal

**Ahozko Testuak**

Komunikazio-proiektuen baitan

Ulergarriak, baina erronka kognitiboa

Askotarikoak, euskarri, helburu,

Testu errealak, ikasleen interesekoak

Testu-tipo eta testu-genero

Euskara eta euskal kultura eta

Literatura testuak.

....

kulturaren inguruko hitzaldiak eta solasaldiak antola daitezke ikastetxean bertan, edo gaurkotasan handiko gaien zein ikasleen intereseko beste edozein gairen gainekoak.

Gainerako ikasgaietan antolatuko diren bisita gidatuak ere har daitezke ahozko testu errealtzat: planetariora, edota museo eta erakusketetara joatea, adibidez, eta ikasleek entzungo dituzten ahozko azalpen formalen inguruko jarduerak prestatzea.

Eskola-irratia ere baliabide ezin hobea da ikasleek ahozko testuak sortu eta entzun ditzaten. Gainera, teknologia berriek horrelako baliabideak sortu eta kudeatzeko, hainbat aukera eskaintzen dituzte, erraz eskuratzeko modukoak. Horretaz gain, blogak, wikiak eta antzeko euskarriak bultza daitezke, bai ikastetxean, bai ikasgelan, ikasleek entzumen-jarduerak egin ditzaten.

Teknologia berriek, halaber, aukera ematen dute ikasleek beste leku bateko ikasleekin harremanak izan edota beste euskalki batzuk entzuteko.

### Nola entzun? Zenbait aholku

- Ikasgelako giroa zaindu egin behar da, ezinbestekoa den giro lasaia eta elkarrekiko errespetua lortzeko.
- Entzute-saioen iraupena kontrolatu egin behar da, ulermenak eskatzen duen tentsioari eusteko.
- Diskurtso zatietatik abiatzea komeni da, inferentziak egiten laguntzeko: elkarrizketa zati batetik abiatu, solaskideak zertaz ari diren asmatu, zer gairen inguruan ari diren adierazi...
- Entzunaldian zehar, ikasleen artean bana daiteke lana: batzuek ideia nagusiak atera ditzakete; beste batzuek, edertasuna ematen duten elementuak, hitz zailak, antzemandako desbideratzeak...
- Ahozkoaren ulermenari lotutako ebaluazio-adierazleak kontuan izan behar dira; ikasleei jakinarazi behar zaizkie, eta, ahal den neurrian, haiekin adostu.
- Ebaluazioari dagokionez, entzuketa-prozesuaren inguruan hausnartzeko, txantiloiak eta kontrol-orriak erabil daitezke.
- Talde-lana bultzatu behar da entzunaldietan, batez ere ahozko literatura-entzunaldiak lantzean, ikasleek entzun dutenaren gaineko interpretazioa egin dezaten. Interakzioa sustatzea da modurik eraginkorrena interpretazioari laguntzeko eta ideiak eta sentimenduak elkarrekin partekatzeko.



## **5.9. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: ahozko adierazpena**

Ahozko adierazpenak hau eskatzen du: ikasleak pertsona-mailan, eskolan, gizartean, lan-esparruan... garatzeko. behar dituen ahozko testuak ekoizteko prozedura, jarrera eta ezagutza multzoa kudeatzea.

Egungo gizartean, ukaezina da ahozko komunikazioak pisu handia duela; izan ere, hizkuntza mintzatua ondo erabiltzeak erabateko garrantzia du hainbat esparrutan, hala nola lan-munduan, gizarte-harremanetan, harreman pertsonaletan...Hala ere, lehenago esan bezala, eskolak ahaztuta izan du ahozko eredu egunero-egunero lantzea, normalean idatzira jo izan duelako.

Horretaz gain, hizkuntza mintzatua lantzeak aparteko zailtasunak izan ditu: alde batetik, ikasleen ekoizpenak jasotzea, eta, bestetik, testuingurua (espazioa, denbora, rolak...) egoki kudeatzea.

Bestalde, oraintsu arte, ikasgela lan egiteko espazio isila izan da; espazio horretan, irakasleak soilik hitz egin ahal izan du. Egun, ordea, ikasgela komunikazio- eta interakzio-gune bihurtu behar da: ikasleek azalpenak eman, negoziatu, iritziak adierazi eta horiek guztiak elkarrekin partekatuko dituzten tokia; baina, horretarako, elkarrekiko errespetua eta lankidetzaren giroa sustatu behar da, eta ikasleei hitz egiteko aukera eta denbora eskaini behar zaie.

### **Nolako ahozko testuak landu behar dira?**

Eskolan, batez ere ahozko erabilera formalak jorratu behar dira. Izan ere, eskola erabilera-eremu formala da, eta bertan egiten diren ikasteko jarduerak ere formalak izaten dira; adibidez, irriti-kronikak, ahozko azalpenak, albisteak, olerkiak... Erabilera formal horietan, ahozko azalpenak leku garrantzitsua izan behar du, ikaskuntzaren transmisioari lotutako ekintza –arloan eta irakasgai guztietan landu beharrekoa– baita.

Hala ere, euskarari dagokionez, batez ere gizartean presentzia urria duen kasuetan, erabilera informalek ere (pasadizoak, gertaerak, abestiak...) lekua izan behar dute, ikasleek gizarteak eskaintzen ez diena eskolan jorra dezaten eta komunikazio-gaitasuna euskaraz gara dezaten.

Ikus-entzunezko baliabideek eta IKTek aukera ematen dute ahozko ekoizpenak jasotzeko. Bestalde, Portafolioa oso tresna erabilgarria izan daiteke ikasleen ekoizpenak biltzeko, eta ahozko azalpenak garatzen ari direla egiaztatzea eta horren inguruko gogoeta egiteko.

### **Ahozko adierazpena lantzeko zer egin behar da?**

Ahozko testuak ekoizteko prozesua testu idatzia sortzeko prozesuaren antzekoa izan arren, ahozko testuak ezaugarri bereziak dituzte: elementu paralinguistikoak (kinesia, keinuak, ahotsaren tonua, isiluneak, asertibitatea azalratzea...),. Elementu horiek ere sistematikoki landu eta ebaluatu behar dira.

Ikasgelan, ahozko hizkuntza lantzen bada ere, prozesuaren urratsak sistematikoki jorratzea falta izaten da askotan. Izan ere, ahozko azalpenak edota beste edozein ahozko ekintza gauzatzeko, ibilbide zehatz bati jarraitu behar liokete ikasleek. Beraz, Euskara ikasgaiko programazioan, mintzamena lantzeko atazak eta sekuentzia didaktiko edo proiektuak jaso eta bertan ahozko testuen ekoizpenari lotutako urratsak jorratu behar dira.

Urratsak hauek dira:

- Ikasleek ekoitzi behar duten ahozko testuaren arabera, ahozko testu errealeen ereduak entzutea eta era askotako testu-generoak aztertzea, xedea, erabilera-eremuak, hizkuntza-erregistroa, euskalkia... zehazteko. Helburu hori lortzeko, IKTek eredu ugari jartzen dituzte eskura: irrati-webguneak, telebista-guneak eta bideo-guneak, adibidez.
- Ahozko testuak planifikatzean, komunikazio-egoeraren araberako egokitzapena egitea: kontuan hartzea hartzailearen ezagutzak eta interesak, ahozko testuaren xedea, denbora, tokia, erabili beharreko erregistroa... Tresna gisa, planifikazio-orriak erabil daitezke.
- Ahozko testua egituratzea: aurreko parametroetan oinarrituta, informazio egokia bilatu, hautatu eta eskemen bidez antolatzea.
- Proba-saioak egitea eta tarteko ebaluazioa gauzatzea, behin betiko saioa bideratzeko. Beharrezkoa da ekoizpen zuzena, egokia eta jatorra nola egin daitekeen ikastea.
- Ahozko ekoizpenari laguntzeko, eskemak egin eta oharrak idaztea, esan behar dutena buruz errepikatzerara mugatu gabe.
- Ahozko aurkezpenak eta azalpenak egiteko, ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzea, hala nola irudiak, horma-irudi digitalak, powerpointak, bideoak...
- Prozesuan zehar, ahozko ekoizpenari lotutako estrategiak abiaraztea, hala nola mezua ulergarriago egiteko prozedurak: gaiari eusteko eta ezarritako ildoari jarraitzeko estrategiak; urduritasuna saihesteko moduak; keinuak, gorputzaren mugimenduak, intonazioa eta prosodia kontrolatzeko teknikak...
- Ahozko jardueretan, oso garrantzitsua da ikasle guztien partaidetza bultzatzea. Horrenbestez, ikasleak inplikatu egin behar dira ahozko azalpenen ebaluazioan. Izan ere, ikaskideen jarduna koebaluazioaren bidez ebaluatzea oso baliabide eraginkorra da denen gogoeta bultzatzeko. Igorlearen ahozko ekoizpena balioestean, partaide sentitzeaz gain, nor bere ahozko jarduna ere hobetu ahal izango du. Gogoeta egitea eta ebaluatzea beharrezkoak dira hizkuntza garatzen laguntzeko eta edozein prozesu burutzeko.



## 5.10. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: interakzioa

Ahozko interakzioa hizkuntzaren erabilerekin dugun lehenengo harremana eta harremanik ohikoena da; hizkuntza erabili egiten dugu, batez ere ahoz, jaiotzen garenetik eta etenik gabe. Hala ere, Hezkuntzan horri ez zaio behar besteko kasurik egin, nahiz eta interakzioa funtsezkoa izan ikasleen gizarte-bizitzan, ikasketetan eta, gerora, lanbide-bizitzan.

Hain garrantzitsua da interakzioa, ezen Europako Erreferentzia Markoak beste trebetasun baten gisara deskribatzen duen, norbanakoak bakarrik kudeatutako diskurtsotik bereizita. Interakzioan, ikasleek hitzun eta entzule gisa dihardute, txandaka, solaskide batekin edo gehiagorekin, ahozko elkarrizketa bat osatzeko, eta, elkarlanean oinarrituta, esanahiak negoziatu egiten dituzte.

Ahozko interakzioa nagusiki aurrez aurrekoa da, eta horrek aniztasuna dakarkie testuari eta hizkuntzari, baita ezaugarri paralinguistikoei eta testuinguruko seinaleei ere.

Interakzioa, beste trebetasunekin gertatzen den bezala, erabilera gidatuaren eta etengabeko praktikaren bidez garatzen da; ez da bat-batean eta une jakin bati lotuta ikasten den trebetasuna. Beraz, etapa guztietan landu behar da, eta ikastetxean interakziorako bideak eta aukerak ematen dituzten egoera komunikatiboak proposatu eta graduatu behar dira, zailtasun- eta konplexutasun-mailaren arabera.

### Zer egin ikasgelan?

#### **Ikaste prozesuaren bultzatzailea bihurtu interakzioa.**

Interakzioa, duen alderdi sozialaz eta pertsonalaz gain, ikastea ahalbidetzen duen funtsezko trebetasuna da; ikasle eta irakasleen arteko elkarrizketaren bidez nahiz ikasleen elkarlanaren eta elkarrizketaren bidez egiten da. Interakzioak ezagutza, esanahia eta iritziak eraikitzen laguntzen du.

Horregatik, beharrezkoa da ikasgelan elkarrizketa sustatzea, bai edukien ulermena, bai proposatu diren jardueren ulermena egiaztatzeko. Izan ere, askotan, ikasgelan ezartzen den komunikazioaren estiloa norabide bakarrekoa izan ohi da, eta ez du erantzunik eskatzen. Alderdi hori erabat lotuta dago oinarritzko gaitasunen garapenaren markoan irakasleak eta ikasleak izan behar duten rol-aldaketari.

Funtsezkoa da talde-lana proposatzea eta lan hori eraginkortasunez kudeatzea. Helduekin gertatzen den bezala, taldeka lan egiteak luzaroan praktikatzea eta ikastea eskatzen du; horregatik, horrelako proposamenak ikastetxeko klaustroan erabaki behar dira, ikasleekin lan egiteko teknika hori ohikoa izan dadin.

#### **Solaskide batzuen artean kudeatutako testuak proposatu: debateak, mahai-inguruak, elkarrizketak...**

Komunikatu nahi ez bada, ez dago interakziorik, erabateko komunikaziorik. Hori dela eta, ahalik eta komunikazio-egoera errealenak sortu behar dira ikasgelan, ikasleen interesa piztu eta haiek modurik eraginkorrean komunikatzeko beharra senti dezaten. Horretarako, ikasleen intereseko gaiak proposatu behar dira, eta horiek kudeatzea ikasleen esku utzi.

Bestalde, ikasgelan, interakzioari lotutako jarduerak gauzatu eta komunikazioa ahalbidetzeko, konfiantza eta elkarrekiko errespetu-giroa lortu behar da. Besteak beste, estrategia gisa, kontratu didaktikoak erabil daitezke, eta, bertan, zer onartuko den eta zer arau ezarriko den adierazi.

Halaber, komunikabideetatik hartutako ereduak ikustea eta entzutea (*realityak*, debateak...) baliabide aproposak izan daitezke errentagarritasun didaktikoari begira,



nola egin behar den edo ez den egin behar ikasteko; izan ere, batzuetan, batere eraginkorrak ez diren interakzio-adibideak izaten dira.

Interakzioari lotutako jarduerak Euskara eta Literatura ikasgaiaren hainbat eduki lantzean planifika daitezke. Esaterako, literatura-gaiak lantzean edota edozein literatura-liburu irakurtzean, tertuliak edo irakurketa-taldeak proposa daitezke; horrela, interakzioa eraginkorra eta erregulatua izango da.

Talde interaktiboak sortzeak interakzioa bera garatzeari lagun diezaioke. Esaterako, ikastalde berean pertsona helduak aritu ahal dira ikasleen lan-taldeei laguntzen. Teknika hori oso eraginkorra da elkarlanean oinarritutako ikaskuntza bideratzeko.

Beharrezkoa da, bestalde, ikasleen parte-hartzeak aldiro grabatzea. Bideo-grabazioek ez dute tresneria berezirik behar: sakelako telefonoa, argazki-kamera edo bideo-kamera besterik ez. Tresneria sinplea, baina behar-beharrezkoa, ikasgelan ahozko hizkuntza eraginkortasunez landuko bada.


Ikasleen interakzioei behatuz gero, zailtasunak ikusi eta arazoak aztertzeaz gain, ikasleek beren jardunaren gainean hausnartu ahal izango dute; izan ere, ebaluatzeak eta hizkuntzaren erabileraren inguruko gogoeta egiteak erabateko garrantzia dute hizkuntza hobeto erabiltzen ikasteko. Koebaluazio-jarduerak egin daitezke –irakasleak ikasleekin eta ikasleak elkarrekin–, aurretiaz prestatutako kontrol-zerrendak erabiliz.

Interakzio-diskurtsoak, batzuetan, ahozkotik idatzizkora pasatu behar izaten dira; esaterako, norbaiti elkarrizketa egin eta grabatu ondoren, edo elkarrizketa batean azaldutakoa laburtzean... Lanketa horrek gogoeta-lana egitera behartzen du ikaslea, eta ahozko interakzioari berari lotutako ezaugarriez hausnartzera.

### Erregistroak eta aldaerak lantzeko baliabidetzat hartu interakzioa.

Zenbait egoera soziolinguistikotan, ikasleek eskolan soilik entzun, hitz egin eta lantzen dute euskara. Horrelako egoeretan, sarri, partaide ezagunekin eta gai arruntenetan ere, arazoak izaten dituzte hitz egiterakoan. Problema horiek linguistikoak dira asko, eskolaz kanpoko gai arruntekin erlazionatutako hiztegia erabiltzekoak beste batzuk, baita esapide “jatorrei” eta eguneroko esamoldeei dagozkienak ere. Beraz, halako ikasleekin eztabaida ez-formala eta elkarrizketa arrunta landu behar dira gelan.

Etiket euskaldun diren ikasleak, aldiz, ohituta daude eguneroko solasetan euskaraz parte hartzen, eta erregistro arrunta erabili ohi dute. Horien jarduna izan daiteke batzuek besteengandik ikasteko bidea, talde heterogeneotan lan eginez, ikaskideen solasak entzunez, eta egoera eta moduak eskolan sortuz, interakzio errealak, benetakoan antzekoak lortzeko.



## 5.11. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: irakurriaren ulermena

XXI. mendean, informazioaren eta ezagutzaren mendean, modu egokian irakurtzen ez jakiteak edota irakurtzeko gaitasuna behar bezain ongi garatuta ez izateak gizartean baztertua izateko arriskua dakar, horrek norbanakoaren gizarte-, lan- eta pertsona-garapena oztopatzen baitu.

Irakurtzea testuaren deskodetze hutsa baino askoz prozesu konplexuagoa da; izan ere, hau guztia eskatzen du: abilezia kognitibo konplexuak erabiltzea, munduaren ezaguera eta hizkuntzari lotutako ezagutzak abiaraztea, eta irakurketa gizarte-praktikatzat hartzea. Alderdi horiek guztiak berariaz landu behar dira ikasgelan.

Irakurle gaituak izateko, ikasleek gauza izan behar dute honetarako:

- Testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- Informazioa berreskuratzeko.
- Testua interpretatzeko.
- Irakurketan zehar ulermen-arazoak detektatzeko eta horiek konpontzeko.

Gero, hauek egin ahal izateko:

- Informazioa erabiltzeko eta, horrela, aurreikusi den helburuari eusteko.
- Irakurritakoa laburtzeko, eta buru-mapak eta eskemak egiteko.
- Irakurritakoaren inguruko balorazio kritikoa egiteko.
- Norberaren ezagutzetatik abiatuta, iritzia adierazteko.

### Nola landu irakurketa?

Irakurketari lotutako jarduerak zentzua eta helburua emango dien testuinguruan txertatu behar dira; eta kontuan izan irakurketa curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan dagoen hizkuntza-trebetasuna dela.

Xede askorekin irakurtzen da: plazera lortzeko, informazio zehatza eskuratzeko, testuaren ikuspegi orokorra izateko, ikasitakoaren inguruko kritika egiteko edo ikasitako hori berrikusteko, ezaguna den informazioa zabaltzeko...; horregatik, helburu bakoitzaren araberako estrategiak baliatu behar dira.

Esan bezala, irakurketa-jarduerak sekuentzia didaktiko konplexuagoen barruan txertatu behar dira; izan ere, ulermen-jarduerak estu lotuta daude beste hizkuntza-trebetasunak lantzeko jardueri: irakurri egiten da, gero idazteko; irakurri egiten da, irakurritakoaz jarduteko; irakurri egiten da, ahozko azalpena egiteko...

Irakurketa-prozesuak irakurritakoa ulertzeko eta interpretatzeko estrategiak garatzea eta lantzea eskatzen du. Prozesu horrek hiru une hauek ditu:

### Irakurri aurretik:

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuaren esanahiaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina aktibatzea.
- Testuaren edukiaren inguruan aurretiazko ezagutzak aktibatzea.
- Aurreikuspenak eta hipotesiak adieraztea, formatuaren ezaugarriei erreparatuz, lokailuei erreparatuz...
- ...

### Irakurri bitartean:

- Hipotesiak etengabe adierazi eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testuak irakurritakoan sortzen diren zalantzak argitzea.
- Ulermen-arazoak konpontzea.
- Irakurritako atalen edukia laburbiltzea.
- ...

### Irakurri ondoren:

- Irakurritakoa laburpen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerrabiltzea eta ezagutza berria eraikitzea.
- .....

Beraz, irakurketari lotutako estrategia horiek garatzeko, irakurketaren helburura, hautatutako testu-generora eta ikasleen mailara egokitutako jarduera zehatzak eraman behar dira ikasgelara.

Irakurketa banakako eta isileko jarduera gisa zein ikasleek elkarrekin partekatuko duten jarduera gisa landu behar da. Bai bata, bai bestea egokiak dira irakurketaren helburuak lortzeko.

Banakako irakurketa isila taldean irakurtzearekin osatu eta aberasten da. Irakurketa dialogikoan, ikasgelan dauden partaideak (ikaskideak, pertsona helduak, irakaslea, beste ikasle edota irakasle batzuk...) testua ulertzeko eta interpretatzeko lankidetzan aritzen dira –taldean irakurri eta elkarrengandik ikasi–, eta galderak, iruzkinak, iradokizunak... egiten dituzte, eta testua irakurtzean bizi eta sentitutakoa kontatzen. Irakurtzeko modu biek elkarri laguntzen diote.



Bestalde, irakurzaletasuna garatzea, Hezkuntza Sistemaren lehentasunezko helburua denez, ikasgai guztietan islatu behar da. Orientabide hauek kontuan harturik susta daiteke irakurzaletasuna:

<b>IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO ORIENTABIDEAK</b>			
<b>Nolako testuak?</b>	<b>Nola?</b>	<b>Non?</b>	<b>Noiz?</b>
Ikasleen intereseko gaiak. Askotarikoak (egitura, gaia, generoa...).	Borondatezko irakurketa. Irakurri osteko lanik gabe. Esperientziak partekatzeko.	Ikasgelako zein ikastetxeko liburutegian.	Eskola-ordutegiaren barruan. Ordutegi zehaztua eta aurrez adostua.

#### **Irakurtzen eta irakurritakoa ulertzen irakasteko dekalogoia**

- Irakurketari zentzua emango dion testuingurua sortu.
- Irakurgaiak ikasleekin batera ondo eta arretaz azertu.
- Ulermen-helburu zehatzak ezarri.
- Bi ulermen-maila kontuan izan: bata, testuak diotenaren ingurukoa; bestea, testuak aipatzen duen egoeraren ingurukoa.
- Ikasleen arteko desberdintasunak kontuan izan.
- Ulermen-prozesuak ozenki adierazten eta egituratzen lagundu.
- Ikasleen buru-prozesuak bideratuko dituzten galderak egin.
- Galderen erantzunak jarraibideen eta argibideen bidez gidatu.
- Testu-genero eta galdera mota askorekin praktikatu.
- Ulertutakoa eta interpretatutakoa partekatu.

Eduardo Vidal-Abarca

## Zer irakurri?


Ikasleak trebatu egin behar dira honetan: eskola- eta gizarte-eremuetan erabilgarriak diren testuak eta garapen pertsonalerako lagungarri izango zaizkien testuak ulertzen eta interpretatzen.

Horretarako, ezinbestekoa da testu-bankua osatzea: testu errealak eta, testu-generoari, euskarriei, erabilpen-eremuari eta euskalkiei dagokienez, askotariko testuak, testu jarraituak eta ez-jarraituak izango dituen testu-bankua. Horrekin batera, ikasgelan gauzatuko diren komunikazio-proiektuen gaiei lotutako testuak erabiliko dira, baita beste ikasgai batekoak eta ikasleen interesekoak ere.

Internet liburutegi digital handi eta garrantzitsua bihurtu da egun; etengabe gaurkotzen ari da, eta testuak bilatzeko eta hautatzeko zereginetan laguntzen du. Beraz, komeni da testu digitalen helbideak aukeratzea. Testu digitalek, baina, abilezia bereziak lantzea eskatzen dute; izan ere, hipertestuaren egitura ez da lineala, adar asko ditu; irakurtzeko ibilbide eta aukera asko eskaintzen ditu. Horregatik, irakasleak irakurle ezgaituei irakurtzeko ibilbidea zehazten lagundu behar die, betiere irakurketarako zehaztu den helburuaren arabera.

Irudiak gero eta garrantzitsuagoak dira; horregatik, egun, testu askok kode askotarikoak erabiltzen dituzte, eta, ondorioz, testuak multimodalak izaten dira. Ikasleek komunikazio-testuinguru arruntetan halako testuak irakurri eta interpretatzeko abileziak garatu behar dituzte.

Irakasleak, bestalde, gainerako ikasgaietan erabiltzen eta eskatzen diren testu-generoen berri izan dezake eta hizkuntzazko ikasgai bihurtu (laborategiko txostenak; landare, animalia edo onddoei buruzko gidak; lan monografikoak; helburu jakinekin egiten diren laburpenak; pertsonaien biografiak...).



## 5.12. Hizkuntza-trebetasunak lantzen: idazmena

Egungo gizartean, idaztea hau da: hizkuntza idatzia askotariko komunikazio-egoeretan –bizitza pertsonalari, lanari eta gizarte-esparruei zein ikasketei lotutako komunikazio-egoeretan, hain zuzen ere– erabiltzen ikastea. Diskurtso idatziak ugari dira, eta halako testuen erabilera, askotarikoa: batzuetan, praktikoa (oharrak, gutunak, kontratuak,

txostenak, eskabideak...) eta, besteetan, artistikoa (asmo literarioko testuak, estilo-ariaketak...).

Horretaz gain, idaztea ezinbesteko tresna da egungo gizarte digitalizatuan, askotariko komunikazio elkartrukeetan parte-hartzea ahalbidetzen duten idazteko era eta genero berriak sortu dira: posta elektronikoa, txatak, blogak, wikiak, foroak... ;

Halaber, nabarmendu behar da idazteak garrantzi handia duela edozein ikasgai ikasteko prozesuan. Prozesu horretan, idatzi egin behar izaten da, besteak beste, irakurritakoa eta entzundakoa (galderak, oharrak, beste irakurgai batzuekiko erreferentziak, laburpen txikiak, gidoiak eta eskemak...) jasotzeko; ikasitakoa (laburpena, eskema...) antolatzeko, eta antolatutakoa berrantolatu eta eraldatzeko...; horrela barneratzen dira ezagutza berriak.

Idazteak berebiziko garrantzia dauka ezaguera eta pentsamendua antolatzeko eta adierazteko orduan; izan ere, idaztean, bi ahalmen horien arteko interakzio-prozesua ematen da. Horregatik, egoki eta zuzen idaztea ahalbidetzen duten ezagutzak, estrategiak, abileziak eta teknikak irakastea da eskolak duen helburu nagusietako bat. Egiteko hori irakasle guztiei dagokie, eta ez soilik hizkuntza-irakasleei.

Bestalde, idazketa-prozesua lantzerakoan, kontuan izan behar da hizkuntza-trebetasunak (mintzamina, entzumena, irakurmena eta idazmena) ez direla modu isolatuan landu behar, baizik eta elkarri lotuta: hitz egin eta irakurri egiten da, gero idazteko, eta idatzi egiten da, gero irakurtzeko edota idatzitakoaz hitz egiteko.

## **Nola landu idazketa?**

Ikasgelan landu behar den idazketa-prozesuan, oinarrizko printzipio hauek hartu behar dira kontuan:


- Idazketa-prozesuaren konplexutasuna. Ikasleei ikusarazi behar zaie idaztea oso prozesu konplexua dela eta, horregatik, idazten idatziz –asko idatziz– ikasten dela; izan ere, eskolaldiko urteetan eta bizi osoan garatzen den trebetasuna da idazmena. Beraz, ikasleen interesetatik gertuko atazak eta proiektuak proposatu behar dira, erronka kognitiboak, hizkuntza-mailakoak nahiz komunikazio-mailakoak, eskatuko dizkietenak baina.
- Idazketa-proiektua komunikazio-egoera batean txertatzeko beharrezana. Ikasleek zerbaitengatik eta zerbaiterako idatzi behar dute. Beraz, ikasleen ekoizpenak eskolako ohiko egoeretan txertatu behar dira, eta idazteko egoerak eta uneak dibertsifikatu: aldizkari eta egunkarietan idaztea, ikaskideen arteko trukeetan parte hartzea, Administrazioari edo hezkuntza-erakundeei idaztea, beste ikasgai batzuetako lanak idaztea, sarean parte hartzea...
- Askotariko komunikazio-egoerak proposatzea. Funtsezko tresna da hori era askotako testu-generoak lantzeko eta, horretaz gain, ikasleei aukera emateko ikasgelan zehaztu diren idazketa-proposamenak (testuaren helburua, hartzaileak, edukiaren egitura, hizkuntza-maila eta erregistroa) modu egokian kudeatzeko.
- Ikasleei erreferentziatzen hartuko dituzten testu-eredu errealek aurkeztea. Horien bidez, komunikazio-egoera irudikatuko dute, eta testuaren egokitasuna kontuan hartuko. Izan ere, testua egituratzen eta planifikatzen ikasteko, beste testu batzuk behar dira; besteak beste, kontsultatzeko eta, bertatik informazioa atera eta gero, informazio hori berrerabiltzeko, edo dituzten egiturak eredutzat hartzeko edo hizkuntzari lotutako arazoak konpontzeko balio dutenak..
- Idazketa-prozesuaren bi helburuak kontuan hartzea. Idazketa-prozesuaren ikaskuntza-jarduerek bi helburu hauek dituzte: helburu diskurtsiboa eta ikaskuntzari lotutako berariazko helburua. Esaterako, iritzi-artikulua idazteko sekuentzia

didaktikoaren helburu diskurtsiboa egunkarian, aldizkarian edo ikastetxeko blogean argitaratuko den testua da eta ikaskuntzari lotutako helburua, berriz, argudiatzen ikastea (tesia zehaztu eta hori defendatzeko argudioak garatzea, argudiatzeari lotutako lokailuak erabiltzea...)

- Irakurtzeko eta idazteko egoerak solaskideekin –ikaskideak elkarrekin, irakasleak eta ikasleak elkarrekin, pertsona helduekin...– interakzioan ahalbidetzea. Hartara, idazten hasi aurretik, ideiak partekatu egingo dira; iritziak, kontrastatu eta eztabaidatu, eta egitekoa, berregokitu. Gero, idazketa-prozesuan, idazkiak irakurri, eta, besteek balioetsi eta interpretatu ondoren, galderak egingo dira, eta zalantzak adieraziko. Akordioak eta desadostasunak bitarteko, lankidetzari esker, testuak idatzi egingo dira. Azkenik, idatzitako testuak, ikasgelako kideekin eta gainerako ikaskideekin partekatu, eta jakitera emango dira sarean, etxekoan artean, lagunaren artean, beste irakurle batzuen artean...
- Ikasgelan giro aproposa eta egokia sorraraztea. Ikasle guztiek idatzi dituzten testuei behar besteko garrantzia emateko eta balioesteko, testu bakoitzaren alderdirik onenak azpimarratu behar dira, eta idazteak emozioak, sentimenduak ideiak eta pentsamenduak adierazteko duen garrantziari indarra eman behar zaio. Testuinguru horretan, irakasleak ere bere testuak idatzi eta aurkeztu behar lituzke, interakzioa sustatzeko.

### Nola programatu sekuentzia didaktikoa?

Sekuentzia didaktikoa programatzeko unean, oso erabilgarria izan daiteke Anna Camps-ek proposatzen duen honako eredu hau:



### 5.13. Literatura-hezkuntza

Literatura-hezkuntza, haurtzaroan hasi, eta bizi osoan garatzen da; izan ere, irakurketaren esperientzia bikarioa –behatus ikastea, alegia– sortu familian sortzen da, ia umeak eskolatu aurretik, eta eskolan jarraitu egiten du. Familia eta eskola eremu erabat garrantzitsuak dira trebetasun hau garatzeko.

Literatura-hezkuntza ikasleak hizkuntzan eta komunikazioan hezteko osagai garrantzitsua da. Literatura-testuen irakurle eta entzule gaituak izateko, ikasleek hizkuntza erabiltzeko trebetasunak eta abileziak garatu behar dituzte, baina, horiez gain, komunikazio arruntaren aldean, bestelako ezaugarriak dituen beste komunikazio era bat ere garatu behar dute: komunikazio literarioa, alegia, eta, horrekin batera, interakzioan aritzeko gaitasuna eta trebeziak ere bai.

Hizkuntza-ikasgaien helburu nagusietako bat irakurle gaituak lortzea da. Horren arabera, irakurleak gauza izan behar du honetarako:

- Irakurtzen duena identifikatu, ezagutu eta gogoratzeko.
- Testua testuinguruan kokatzeko.
- Testuak zer esan nahi duen interpretatzeko.
- Testuaren forma eta edukia balioesteko.
- Testuarekin interakzioan, egoera edo testuinguru pertsonal baten arabera, informazioa ikaskuntzari lotutako beste egoera batzuetara transferitzeko. Horretarako, testua maneiatu eta eraldatu egin behar du ikasleak.

Ikasleen heziketa literarioa garatzeko, ezinbesteko baliabidea da literatura-tradizioko testuak eta gaur egun bizi-bizirik dauden ahozko testuak entzutea; horrek, gainera, atek zabaltzen dizkie entzuketa aktiboari eta interpretazioari.

Literaturara hurbiltzeak badu beste helburu nagusi bat: irakurriz eta ahozko literatura-testuak entzunez, plazera lortzea. Literatura-testuak entzutean eta irakurtzean, gizabanakoak hainbat baliabide topa ditzake bere burua hobeto ezagutzen laguntzeko, bestelako gizakiak eta egoerak ezagutzeko, mundu errealean zein irudimenezko esparruetan zehar ibiltzeko eta hizkuntzaren botereaz –hizkuntzak adierazteko dituen aukera infinituez– gozatzeko. Horretan datza literatura irakurtzeko eta entzuteko plazera; ikasleek horretaz guztiaz disfrutatzea lortu behar lukete.

#### Zer literatura-testu landu behar dira?

Literaturak hainbat testu-egitura eskaintzen ditu: olerkiak, bertsoak, antzezlanak, eleberriak, ipuinak, mikronarratioak, komikiak, nobela grafikoak, zinema-gidoiak... ; halaber, egungo gizartean, literaturaren baliabideak erabiltzen dituzten testu asko bizi dira elkarrekin, hala nola publizitate-testuak, kazetaritza-testuak, multimedia... Heziketa literarioak horiek guztiak ulertzen eta interpretatzen laguntzen du.

Egun, literatura-testuek formatu askotarikoak dituzte; izan ere, irudia (ilustrazioak, argazkiak, komikiak, ikusizko olerkiak...) gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen. Era berean, gainerako diziplinek eta arteek, hala nola zineak, musikak, zientziak, plastikak... erabiltzen dituzten baliabideak ere txertatzen dira literatura-testuetan, testu adierazgarriagoak eta komunikatiboagoak lortzeko. Ikasleek, beraz, abileziak eta trebetasunak garatu behar dituzte halako testuak –bestelako kodeak erabiltzen dituztenak eta komunikazio-testuinguru arruntetan gero eta indar eta garrantzi handiagoa dutenak– irakurri, entzun eta interpretatzeko.



Formatu digitalek ere berrikuntza handiak ekarri dituzte literaturara: liburu elektronikoak; sarean eskegitako literatura, hainbat formatutan; literatura-lanak zabaltzeko erak eta aukerak... Testu horiek aukera ematen dute interakzioan aritzeko, hasierako testuari lotutako beste testu batzuetara jotzeko; informazio berriak irakurri, entzun eta eskuratzeko; baita beste irakurle batzuen iradokizunak, usteak eta iritziak jasotzeko ere. Beraz, bermatu egin behar da ikasgelan halako testuak egotea.

Bestalde, ikasgelara eraman behar dira euskal literatura-tradizioko ahozko eta idatzizko testuak, ikasleen heziketa literarioaren parte eta Euskal Herriko kultura tradizioaren eta ondarearen lekuko baitira.

### **Zer egin literatura-hezkuntza garatzeko?**

Literatura-hezkuntzaren ikuspuntutik, ikasleak literatura-lanak entzun, irakurri, ulertu interpretatu eta balioesteko gauza izan daitezten, aholku hauek har daitezke kontuan:

- Orainalditik lehenaldirako planteamendua proposatu. Literaturaren historia lineala, diakronikoa, eta izen eta tituluz jositakoa egin beharrenean, irizpide unibertsalagoak ezarri eta horren arabera, gaiak, generoak...bezalako markoak kontuan izan.
- Literaturaren ikuspegi alderatua bultzatu, munduko beste literaturen arteko erlazioak antzematea ahalbidetzeko.
- Literatura-testuak irakurtzean, diziplinen arteko lotura ikusarazi, hau da, literatura-testuek eta gainerako arteek (musika, zinema, eskultura...) eskaintzen dituzten interpretazioen arteko loturez jabetu.
- Literatura irakasteari gizarte-dimentsioa eta dimentsio kritikoa eman. Literatura-testuak gure gizartearen nola erabiltzen diren eta zer balio duten ikusi behar da, eta horren gaineko kontzientzia hartu. Testuez hausnartu behar da: dituzten helburuez, sorrarazten dituzten eraginez eta transmititzen dituzten baloreez.
- Ikasleen partaidetza sustatu, testuak hautatzean, interpretatzean, testuen inguruan eztabaidatzean, baita proposatutako egitekoak aztertzean eta eraldatzean ere. Horretarako, estrategia hauek baliu daitezke:
  - Gai beraren inguruko testu paraleloak, kontrajarriak edo lotura dutenak erabiltzea. Hartara, ikasleek alderatu egingo dituzte, eta erlazioak ezarriko, berdintasunak eta desberdintasunak antzemateko. Horrela, hizkuntzak sorraraz ditzakeen gizarte-eraginak esperimintatu ahal izango dituzte.
  - Ikasleen arteko elkarrizketa bultzatzea, ikuspuntuak alderatzeko, eta idazlearen ikuspegiaren eta helburuaren inguruan eztabaidatzeko. Horrek irakurgaiaren eta ikaslearen bizipenen arteko erlazioak ezartzen laguntzen du.
  - Puntu esanguratsu eta nabarmenak berrirakurtzea, eta horiek analizatzea. Nekez lortuko da interpretazio egokia testua behin irakurrita, nahiz eta sinplea eta laburra izan.
  - Interpretazioa lantzea. Testuaren interpretazioak, idazlearen ikuspuntuaren edo ideologiaren azterketaz gain, irakurleari iritzia eta jarrera pertsonala agertzea eskatzen dio.
- Irakurketa ikasleen idazmena hobetzen laguntzeko baliabide eraginkortzat hartu. Horretarako, ikasleak testua imitatzen, sortzen eta eraldatzen ikasi behar du. Asko dira testua ulertzeko eta ekoizteko prozesuen arteko antzekotasunak. Beraz, irakurtzea eta idaztea lan-proiektuen barnean uztartu behar dira.



- Kontuan hartu idatziko den testua irakurleei –ikaskideei, irakasleei, familiakoei zein lagunei, beste pertsona heldu batzuei– zuzenduta dagoela. Irakurleek irakurri, bere egin, eta balioetsi egingo dute idatzitako testua: adierazkorra, egokia eta originala den esango dute.
- Irakurriaren inguruko iritziak jakinarazi, eta irakurri eta gero sortutako testu idatziak zabaldu. Idazkiak eta irakurritako testuen eta liburuen inguruko iritziak partekatzeak ematen die benetako esanahia literatura-testuei.
- Literatura-testuak lankidetzan interpretatu, literatura-tertulien bidez, sormen-tailerren bidez, sare sozialak erabiliz... Proposamen horiek interakziorako baliabide ezin hobeak dira irakurra zentzua eta esanahia emateko eta norberaren interpretazioa sakontzeko, besteak beste; horretaz gain, berdinaren arteko elkarrizketa sustatzen dute. Testuen inguruko elkarrizketa horrek informazioa analizatzen, kudeatzen, interpretatzen, balioesten eta irakurritakoari zentzua ematen laguntzen du, baita ezagutza berriak modu kritikoan eta hausnarketaren bidez eraikitzen ere.
- Ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testuak erabili. Literatura-testuak entzutea – ikasleei testuak irakurtzea, profesionalei testuak errezitatzen edo kontatzen entzutea, antzezlanak ikustea...– irakurzaletasuna sustatzeko estrategia eraginkorra da, behar-beharrezko jarduera, emozioz eta sentimenduz jositako komunikazio-giroa sortzen baitu.
- Irakurketa adierazkorra proposatu. Irakurtzeko modu horrek bi funtzio betetzen ditu: bata, estetikoak, eta beste, funtzionala; ikasleak hizkuntzaren osagai ludikora eta estetikora hurbiltzeko balio du, eta, aldi berean, ikasleen gaitasun diskurtsiboa garatzeko; izan ere, irakurtzeko, entzuteko eta ahoz adierazteko trebetasunak hobetzen laguntzen du, baita hitzak duen sedukzio-botereaz jabetzen ere.
- Formatu digitalak landu, hala nola liburu interaktiboak, blog literarioak..., testuaren interpretazioa zabaltzen duen hipertestuaren irakurketan sakontzeko; horrek, sarritan, gehiago irakurtzera bultzatzen ditu ikasleak.
- Irudiak dituzten testuekin lan egin. Izan ere, komunikazioan eta kultura- eta arte-esparruetan bezala, irudiak garrantzi handia dauka gaur egungo literatura-testuetan. Ikasleek, beraz, irudiak irakurtzen eta interpretatzen ikasi behar dute, eta horiek testuarekin dituzten erlazioak antzematen. Eleberri eta ipuin grafikoetan, esaterako, irudien bidez kontatzen da; testu idatziak irudiei laguntzen die, eta, gehienetan, irudien informazioaren osagarri edota hura zabaltzeko erabili ohi da. Komikietan, berriz, irudiak eta testuak elkarri laguntzen diote. Olerki birtualetan, hitzak, testuak eta hizkiek berek irudi gisa dute balioa, eta, aldi berean, balio testuala ere badute; horretaz gain, argazki eta *collage*kin batera aurkezten dira, ikusizko eta testuaren bidezko adierazgarritasuna areagotzeko.

### **Nola irakurri eta entzun literatura-testuak?**

Literatura-testuak irakurtzeko eta entzuteko, hizkuntza-trebetasun horiek garatzeko ataletan aipatu diren estrategiak hartu behar dira kontuan.

Horretaz gain, ez da ahaztu behar literatura-testuek ezaugarri linguistikoei, egiturari eta estetikari lotutako ezaugarri bereziak dituztela, eta, horregatik, aurretiazko ezagutzak abiaraztea eskatzen dutela, barnean gordetzen duten esanahia modu egokian ulertu eta interpretatu ahal izateko.

Grafiko hauetan, literatura-testuetara hurbiltzeko ereduak proposatzen dira:



## 5.14. Ebaluazioa

Ikasteko ahalmena erabat lotuta dago autoerregulatzeko ahalmenari, hau da, ikasketa-helburu bat lortzeko jarduerak planifikatzen jakiteko ahalmenari. Horregatik, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, ikaskuntza aktiboa eta ikasten ikasteko gaitasuna garatzeko egiten den ebaluazioa honetan datza batez ere: autoerregulatzeko jakitean.



Ebaluazioari dagokionez, ikasleek, hizkuntzaren erabiltzaile gaituak izateko, ikasteko atazetan atal hauek kontrolatu behar dituzte:

- Helburua, hau da, egiten dutenaren xedea, zertarakoa.
- Helburua bideratzeko abiarazi behar den prozesuaren atalak, hurrenkera eta planifikazioa.
- Egiten dihardutena ondo betetzen ari diren ala ez jakiteko irizpideak.

Ebaluazioa autoerregulazioan oinarritzeak eragin zuzena dauka alderdi guztietan.

### Zer ebaluatu?

Hezkuntza-etapa bakoitzerako hautatu diren hizkuntza-erabilera errealak dira ebaluazioaren irizpide, eta egiten jakitea da ebaluazioaren elementu erabakitzailea. Beraz, ikasleek erakutsi behar dute komunikazio-egoera bati modu eraginkorrean erantzuteko gauza direla: eskabide-gutuna idazteko, albiste baten esanahia eta zentzua ulertzeko, gai bati buruzko ahozko azalpena egiteko...

Ulermen- eta ekoizpen-prozesuen menderatze maila da ebaluazio-jardueren ardatza, eta horren arabera ezarri behar dira kalifikazioak. Kontzeptuzko edukiak, ordea, osagarriak dira, bai ebaluatzeko, bai kalifikatzeko orduan.

### Zertarako ebaluatu?

Ikaslek zenbat aurreratu duten eta zailtasunak non dituzten identifikatzeko eta, horren arabera, prozesua egokitzeko.

## Noiz ebaluatu?

Ikaskuntza eraginkorra izateko, ebaluazioa sekuentzia didaktikoaren hasieran bertan agertu behar da. Beraz, hasieran ere proposatu behar dira ebaluazio-jarduerak, ikasleek unitatean zehar landuko duten testu-generoaren inguruan zer dakiten ikusteko eta aurrezagutzak azaleratzeko.

Jarduera horiek honela planteatu daitezke: galdetegiak eta gidatutako eztabaidak eginez, aurretiko testu bat idatziz... Hasierako ebaluazioak, beraz, baliagarria izan behar du lan-plana egokitzeke, hala behar izanez gero.

Ikaskuntzari begira, prozesuaren ebaluazioa da ebaluaziorik esanguratsuena, prozesuan zehar azaltzen diren zailtasunak antzemateko balio duelako eta horiei irtenbidea emateko baliagarria delako. Horrek sekuentzia didaktikoko jarduera batzuk ebaluazio-jardura gisa erabiltzea eskatzen du. Esaterako, testua planifikatzean, eskemak egitea ebaluazio-jardueratzat har daiteke, informazioa bilatzeko eta hautatzeko unean sortzen diren arazoak zuzentzeko balio duelako.

Era berean, zirriborroak egiteak ere hizkuntzari lotutako arazoak antzeman eta zuzentzeko aukera ematen du.

Azken ebaluazioak edo ebaluazio sumatiboak lan-unitatean zehar zer ikasi den egiaztatu eta erakusteko balio du. Askotariko probak (ariketa analitikoa, galdetegiak, testua...) izan daitezke, eta beti erabili behar dira prozesuan zehar jaso diren datuen eta behaketen osagarri.

Aitzitik, ikastunitateak amaitutakoan egin ohi diren probek ez dute ikasten laguntzen. Ikasitakoa egiaztatzeke baino ez dute balio, eta hori ere ez beti. Gehienetan, kontzeptuei eta oroimenari lotutako alderdiak ebaluatzen dituzte, eta horiek ez dira oso esanguratsuak hizkuntza hobeto erabiltzen ikasteko.

## Nork ebaluatu behar du?

Ikasgeletan, irakaslea izan ohi da ebaluatzailea, eta ikaslea, ebaluatua. Ikuspegi komunikatiboak, baina, ebaluatzailearen eta ebaluatuaaren rola dibertsifikatzea eskatzen du.

Funtsezkoa da ikasleek apurka-apurka beren idatzizko eta ahoko ekoizpenen kontrola hartzea. Antzeman egin behar dituzte zailtasunak eta akatsak, eta ikasi egin behar dute akats horiek nola zuzendu eta bideratu. Horregatik, ebaluazio-zereginetan eta ebaluazio-prozeduran, ikasleek gero eta esku-hartze handiagoa izan behar dute.

b. Jarduera. Motibazioa.

**Hizkuntza eta hiztunen aniztasuna nonahi (hausnartzeko ariketa)**

Taldea bildurik, goiko mapari eta galderei arazaturu ondoren hitz egin ezaazu horietaz guztiaz.

Erabili galdara lagungarri hauek:

- Zer informazio emanen digute mapa linguistikoki hori?
- Zer adierazi nahi du e. zuzen urte?
- Justu dugu: mapa hori onartu oinarritutako? Zain?
- Bada zehazki, goiko izenburua, mapetan adierazten denera? Zain?

Goiko galdarak: Eragan egiten dira, baina Euzko Herrian ere.

- Zer antzokotasun dute galdara hori?
- Nola arantzen zaitzue goiko galdara?
- Oinarri, bat onartu iritziak.

Zer egin behar dugu eguneroko bizitzan galdara?

Komunitate dibiduetan, nola arantzen dugu hizkuntza baliatze o hiztunen eskualdeak?

Zain hizkuntzatan irakatsi behar da eskualdeak?

Hasierako ebaluazioa. Aurrezagutzak azaleratzeko jardura  
*Hizkuntzen Tratarerak Bateria* materialak.  
<http://tratarerakateria.wordpress.com>

Horretarako, ebaluazio-irizpide zehatz eta argietatik abiatuta, komunikazio-proiektuaren bukaeran ez ezik, prozesuan zehar ere autoebaluazio- eta koebaluazio-txantiloiak bete ditzakete ikasleek. Halaber, sekuentzia didaktikoaren amaieran, gauzatu duten prozesuaz hausnartu behar dute, eta, prozesuaren ebaluazio-txantiloiak erabili. Txantilo horietan, kontu hauei buruzko galderak egingo zaizkie: jardueren planteamendua, jaso duten laguntza, eta egindako lanaren alderdi baikor eta ezkorrak, besteak beste.

### Nola ebaluatu?

Ondo bereizi behar dira ebaluazio-irizpideak eta kalifikazio-irizpideak. Ebaluazio-irizpideetan hautatzen dira ikastunitate bakoitzean edo ikasturte osoan lortu nahi diren helburuei lotutako alderdi esanguratsuak. Kalifikazio-irizpideetan, berriz, erabili den ebaluazio-tresna bakoitzari (jarduera, testu-lagina, proba, koaderno, Portafolioa...) zer puntuazio-

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik, zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?

- argudio-testuen ezaugarriak
- kexa-gutun formalaren ezaugarriak
- tesia eta gaia bereiztekoak
- argudio motak
- testua kohesionatzeko baliabideak
- modalizazio-markak
- ..

2. Zure ustez, ba al da gehiago landu behar litzatekeen edukirik? Aipatu.

3. Zein jardun kostatu zaizu gehien?

4. Zein jardun kenduko zenuke?

5. Azken ekoizpena prestatzeko, laguntza eta informazio nahikoa izan duzu?

6. Unitate honetan ikusitako ezer ikusten duzu baliagarri eguneroko bizitzarako? Aipatu.


7. Nola baloratuko zenuke amaitu berri duzun unitatea?

- Unitatearen edukiak:
- Erabilitako metodologia:
- Erabilitako materialak:
- Saioen erritmoa:

8. Zure ustez, nola hobetu daiteke unitate hau?

Iradokizunak:

Unitatearen ebaluazioa.  
Ikasprozesuaren ebaluazioa.



portzentaje eman zaion jasotzen da; hori alde zuzenetik adostu behar da.

Ebaluazio-prozesu guztiak ebaluazio-irizpideen eta horien adierazle zehatz eta argien arabera egin behar dira; izan ere, horiek emango diete zentzua ikasleek lortuko dituzten kalifikazioei edo egingo zaizkien oharrei.

Curriculumarekin bat etor daitezten, ebaluazio-irizpideek eta adierazleek testuen ulermenari eta ekoizpenari lotuta egon behar dute, eta hemendik atera behar dira: hizkuntza-irakasleek elkarrekin hausnartu ondoren hartutako erabakien emaitzetatik.

Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak jakinarazi egin behar dira, eta ikasgaien programazioan adierazi, bai familiek, bai ikasleek ezagut ditzaten.

Ebaluazio-tresnak irakasleek, zein ikasleek erabiltzen dituzten baliabide

bihurtu behar dira, ikasprozesuaren garapenaren berri izateko. Tresna bat edo beste hautatzea ikasteko helburuei lotuta dago bereziki.

Horrenbestez, ebaluazio-tresnek askotarikoak izan behar dute, eta ikasleen ahozko eta idatzizko testuen ekoizpen kopuru nahikoa jasotzeko aukera eman behar dute, ikasleen aurrerapenak eta zailtasunak zein diren zehatz jakiteko. Hori dela eta, Portafolioa ezinbesteko ebaluazio-tresnatzat jotzen da.

## 6. BALIABIADE DIDAKTIKO HAUTATUAK

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO SAILA: *Hizkuntzen Trataera Bateratua programako unitate didaktikoak*. Helbide honetan:

<http://trataerabateratura.wordpress.com>

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO SAILA: *Oinarrizko Gaitasunak: materialak eta ereduak*. DBHko sekuentzia didaktikoak, oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko. Helbide honetan:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/orientaciones\\_materiales\\_ayuda\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/orientaciones_materiales_ayuda_e.html)

Zenbait sekuentzia didaktiko:

- *XXI. mendearen erronkak*. Gizarte zientzietako eta hizkuntza edukiak era bateratuan lantzeko unitate didaktikoa. Helbide hauetan:

<http://elsigloveintiuno.wordpress.com/>

<http://bloggeandolenguas.com/diversificacion/eronkak.pdf>

- *Una secuencia didáctica sobre Antonio Machado*. Helbide honetan:

<http://amachado.wordpress.com/>

- *Gazteak eta Administrazioa*. Gazteak instituzioekiko harremanetan idatzi behar dituzten dokumentuak, hala nola eskabideak, erreklamazioak... gauzatzeko proposamen didaktikoa. Helbide honetan:

<http://www.debagoiena.com/ldatziak/ikasleak>

- *Irakurriz Ikasi*. Abel Camachok irakurmena lantzeko proposatzen dituen sekuentzia laburrak. DBHko 4. mailan erabiltzekoak. Helbide honetan:

[http://www.buruxkak.org/pdf/110\\_IrakurrizIKASI.pdf](http://www.buruxkak.org/pdf/110_IrakurrizIKASI.pdf)

- *Ahozko azalpena nola programatu*. Helbide honetan:

<http://dpto.educacion.navarra.es/planesdemejora/dok/1lehen/orientabideak/1-3-ahozkoazalpen.doc>

Webquestak, ICTak eta hizkuntzak uztarturik, ikasleek burutu behar dituzten lan-proiektuak, informazioa jasotzeko nagusiki Internet baliatzea eskatzen dutenak:

- Euskararako webquestak. Helbide honetan:

<http://sites.google.com/site/wqikastaroa0809/>

- Hizkuntza-alorreko edukiak lantzeko webquestak. Helbide honetan:

<http://www.saretik.net/forowq>

- Webquestak, Hizkuntzen Trataera Bateratuaren ikuspegitik. Helbide honetan:

<http://www.saretik.net/ticlenguas/>

Hainbat material didaktikoren webguneak. Euskara eta Literatura, eta Lengua Castellana y Literatura ikasgaiak lantzeko, Ordiziako Jakintza ikastolako Maite Goñi irakasleak eta L. Domenech-ek, hurrenez hurren, sortu eta kudeatutakoak; oso erabilgarriak eta material ugariz hornituak. Helbide hauetan:

<http://euskaljakintza.com>.

<http://www.materialesdelengua.org/>



## 7. BIBLIOGRAFIA

BORDONS, G. (COORD.), DÍAZ-P, A.: *Enseñar literatura en secundaria: la formación de lectores críticos*, Graó, Bartzelona, 2006.

CASSANY, D.: *Reparar la escritura. Didáctica de la corrección de lo escrito*, in Graó, Bartzelona, 1993, 2004 (2. argt.).

CASSANY, D.: *Tras las líneas. Sobre la lectura contemporánea*, in Argumentos, 341, Anagrama, Barcelona, 2006.

ZENBAITEN ARTEAN: *Enseñar literatura en secundaria. La formación de lectores críticos, motivados y cultos*, in Graó, 214, Bartzelona, 2006.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO SAILA: *Oinarrizko Gaitasunak EAEko Hezkuntza-Sisteman. Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna. Orientabideak*, 2009. Helbide honetan:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/orientaciones\\_materiales\\_ayuda\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/orientaciones_materiales_ayuda_e.html)

GARCÍA ANDRÉS. M.A: *Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian*. Nafarroako Gobernua, 2008). Helbide honetan:

[http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres\\_files/BLITZa\\_mar11eusk.pdf](http://dpto.educacion.navarra.es/planlectura/documentosdeinteres_files/BLITZa_mar11eusk.pdf)

JIMENO, P.: *Idazmenaren irakaskuntza curriculumeko arlo guztietan*. Nafarroako Gobernua, 2004. Helbide honetan:

[http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/escrituraeusk.pdf /](http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/escrituraeusk.pdf/)

LOMAS, C., OSORO; A., TUSÓN, A.: *Ciencias del lenguaje, competencia comunicativa y enseñanza de la lengua*, Paidós, Bartzelona, 1997.

MARTÍNEZ MONGAY, A.: *Nola prestatu ahozko azalpena Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan*, Nafarroako Gobernua, 2004. Helbide honetan:

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/blitznaranjausk.pdf>



MORENO, V.: *Dale que dale a la lengua. Tomo I. Propuestas para hablar y escribir textos narrativos y descriptivos* eta *Dale que dale a la lengua. Tomo II: Propuesta para hablar y escribir textos expositivos, argumentativos, instructivos y lúdicos*, Pamiela, Navarra, 2008.

NAFARROAKO GOBERNUA: *Komunikazio Gaitasuna. Testu idatzien ekoizpena. Zuzenketarako orientabideak*, 2009. Helbide honetan:

[http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/47/47334\\_ESO2\\_Correccion de textos escritos EUSK.pdf](http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/47/47334_ESO2_Correccion_de_textos_escritos_EUSK.pdf)

PÉREZ ESTEVE, P. eta ZAYAS, F.: *Competencia en Comunicación Lingüística*, Alianza Editorial, Madril, 2007.

SAINZ, M.: *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*, Erein Donostia, 2001.

UNZUÉ, UNZUÉ A.: *Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena*. Nafarroako Gobernu:

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/argudiatu.pdf>

VILÁ, M. (COORD.): *El discurso oral formal*, Graó, Bartzelona, 2005. Sarean ere topa daiteke.

ZABALA, A.; ARNAU, L.: *11 ideas clave: Cómo aprender y enseñar competencias*, Graó, Bartzelona, 2007.